



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación



POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOA
IKASTURTEA 2017-2018

GENERO IKUSPUNTUTIK EGINDAKO
NAZIOARTEKO HARREMANEN ETA
INDARKERIAZKO GATAZKEN AZTERKETA:
2003KO IRAKEKO GERRA

EGILEA: Ane Alzola Salazar
ZUZENDARIA: Iratxe Perea Ozerin

Leioa, 2018ko maiatzaren 29a

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ezegokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisisa ilustratze aldera”

"La autora o autor del trabajo fin de grado declara que son ciertos los datos que figuran en este trabajo original y propio, asumiendo en caso contrario, las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo: plagio, usos indebidos de imágenes, etc. Todas las imágenes son copyright de sus correspondientes propietarios y/o licenciarios. Se incluyen en el presente trabajo bajo finalidad meramente divulgativa para ilustrar el marco teórico o análisis del trabajo"

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
1.1. Aztergaia	3
1.2. Justifikazioa	3
1.3. Helburuak.....	4
1.4. Hipotesiak	5
1.5. Metodologia.....	5
2. MARKO TEORIKOA.....	7
2.1. Nazioarteko Harremanak genero ikuspegi batetik aztertuta	7
2.1.1. Nazioarteko Harremanetako teoria feminista	7
2.1.2 Maskulinitatea eta feminitatea: genero nozio hauen eragina nazioarteko harremanetan eta kanpo politikan.....	8
2.2. Emakumeak gatazka armatuetan eta indar armatuetan	15
2.2.1. Emakumeen rola gatazka armatuetan	15
2.2.2. Militarizazioaren feminizazioa.....	19
2.3. Nazioarteko Zuzenbidea eta 2003ko Irakeko esku hartze militarra: Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren posizioa.....	23
3. ANALISIA. TEORIA PRAKTIKARA ERAMANEZ: IRAKEN BIZI DIREN EMAKUMEEN KASUA	27
3.1. 2003ko esku hartze militarren aurrekariak eta zergatiak.....	27
3.2. Iraken bizi ziren emakumeen egoeraren analisisa AEBko esku hartzea baino lehen: maskulinitate eta feminitate rola landuz.....	28
3.3. Irak esku hartzea eta ondoren.....	35
3.3.1. Iraken bizi ziren emakumeen egoera AEBko esku hartzea eta gero: emakumeen rola Irakeko gatazkan, maskulinitate eta feminitate rol ezberdinak aztertuz.....	35
3.3.2. Genero ezberdintasuna indar armatuetan eta Abu Ghraibeko kasua: AEBko indar armatuen parte ziren emakume estatubatuarrak Iraken	42
4. KONKLUSIO OROKORRAK.....	45
BIBLIOGRAFIA ETA DOKUMENTAZIO ITURRIAK.....	48

1. SARRERA

1.1. Aztergaia

Lan honen aztergaia indarkeriazko gatazka izango dira genero ikuspegitik aztertuta. Zehazki 2003ko Irakeko gatazka izango da aztertuko dugun kasu praktikoa. Horretarako, Nazioarteko Harremanetan (NH) genero ikuspegia landuko da eta feminitate eta maskulinitate rola ikertuko ditugu, baita emakumeen irudikapenak ikasi ere segurtasun arloan eta gatazka armatuetan. Ondoren, genero rola Irak eta Ameriketako Estatu Batuen (AEB) arteko 2003ko gerrak eragindako emakumeen egoeran aplikatuko ditugu; biak, Irakeko emakumeen eta AEBko emakume soldaduen egoerak aztertuz.

1.2. Justifikazioa

- a. Akademikoa: Gradu Amaierako Lan honen interes akademikoa zenbait alderditan oinarritzen da. Batetik, genero ikuspegia kontuan hartuz Nazioarteko Harremanen militarizazioari buruzko jakintza areagotzea gustatuko litzaidake. Aurrekoari lotuta, Nazioarteko Harremanen teorien gehiago sakondu nahiko nuke, bereziki teoria feministan. Bestetik, 2003ko Irakeko esku hartzeak Nazioarteko Harremanetan gauzatu dituen aldaketa ezberdinak aztertzeak lan hau egitera motibatu nau. Gure kasu praktikora begiratu, Irakeko 2003ko gerrak emakumeengan sor ditzakeen ondorio sozialek, politikoek eta ekonomikoek duten esangura lantzea gako da nire ustez. Pertsonalki konplexua iruditzen zaidan, baina garrantzizkoa aldi berean, Ekialde Hurbila hobeto ulertzea gustatuko litzaidake. Azkenik, iturri bibliografikoen bilaketan nire trebetasuna areagotu nahiko nuke lan honekin.
- b. Soziala: Nazioarteko gatazka honetan genero ikuspuntua aztertzea da motibazio nagusia. Irakeko kasua ikuspuntu kritiko batetik ikusteko grina hain zuzen; generoa batik bat eta erlijioa zeharkako gaiak izanda. Era berean, Irakeko gatazka interes politikoak eta ekonomikoak dituen, gustatuko litzaidake indarkeriazko gatazken ondorio sozio-ekonomikoak aztertzea

bereziki gizarte zibilean. Honen fokua Iraken bizi diren emakumeengan jarriz, generoaren inguruan mugitzen diren botere logikek interesa pizten baitigute.

- c. Politikoa: AEB eta Iraken arteko 2003ko gerrak Iraken sortutako aldaketa politikoak eta batez ere instituzionalak aztertzea da gure motibazio politikoak. Bestalde, uste dugu Ekialde Hurbilak beti izan duela garrantzia nazioarteko egoeran. 2003tik aurrera eta batez ere 2011. urtetik ordea, eskualde hau nazioarteko harremanetan funtsezkoa bilakatu da. Horregatik lan honek Ekialde Hurbilean eta zehazki 2003an jazotako egoera politikoan sakontzeko grina du.

1.3. Helburuak

- a. Nazioarteko Harremanetako teoria feministaren ulermen sakona lortzea. Modu honetan, maskulinitate eta feminitate rolek nazioarteko politikan duten garrantzia aztertzeko.
- b. 2003ko Irakeko gerraren aurrekariak eta gerraren nazioarteko zein barneko aktore nagusiak identifikatu, aztertzeko gatazka armatu honen aktore ugaritasunak sortutako konplexutasuna.
- c. Iraken existitzen diren emakumeen mugimenduak aztertzea, emakumeen erresistentzia zibila aztertzeko; eta orokorrean feminitatearen irudikapen ezberdinak aztertzea hauen barruan.
- d. 2003ko Ameriketako Estatu Batuen esku hartzeak eragindako emakumeekiko indarkeria aztertzea Iraken. Gerrak eragindako ondorioak sakonago aztertzeko emakumearekiko indarkeriari dagokionez.
- e. Irakeko emakumeen esperientzietan erlijioaren eragina aztertu, gerra baino lehen eta gerra ostean.

- f. Ameriketako Estatu Batuen esku hartzearen aldebakartasuna eta militarizazioa aztertzea. Halaber, militarizazioaren feminizazioa aztertzea AEBko indar armatuen emakumeengan.

1.4. Hipotesiak

- a. Iraken, emakumeen egoera sozio politikoa eta euren eskubide zibilen eta politikoen egoera hobea zen gerra baino lehen, gerra bukatu ondoren baino.
- b. Ameriketako Estatu Batuetako alde bakarreko esku hartzeak inposatutako militarizazioak ez du hobetu Irakeko emakumeen ahalduntzea.
- c. Orokorrean, Irakeko emakumeen garapena eta egoera okerragotu egin dira 2003. urtetik, estatubatuarren inbasioa kausa nagusia izanik.

1.5. Metodologia

Ikerketa hau lantzeko erabili den metodologia bigarren mailako datu bibliografikoetatik aurrera abiatuta izan da. Batez ere artikuluko zientifikoaren bilaketan, eta ikerketarako adierazgarri izan daitezkeen liburu edo web orrialde desberdinetan oinarritu izan da dokumentazio bibliografikoa. Bereziki, Nazioarteko Harremanetan adituak diren teoriko feministetan oinarritu gara, baita genero ikuspegia landu duten segurtasun eta gatazka ikasketetan. Hala, marko teorikoa gure kasu praktikoan aplikatu dugu.

Beste aldetik, nazioarteko erakundeen eta gobernuen kanpoko erakundeek argitaratutako txosten ezberdinak aztertuko dira, gerraosteko Irakeko egoera soziala aztertzeko. Analisisian batez ere adierazle ofizialez baliatuko gara Irakeko egoera interpretatzeko. Honez gain, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak aztertuko ditugu, aztertu dugun gatazkan berebiziko garrantzia izango dutenak.

Horiek horrela, lan honek bi zati izango ditu: batetik, marko teorikoan NHn teoria feminista gure ikerketara aplikatzeko beharrezkoak diren kontzeptuak azalduko ditugu; eta bestetik, kasu praktiko bat erabili dugu. Hain zuzen, Irakeko emakumeen egoeraren

Genero ikuspuntutik egindako Nazioarteko Harremanen eta indarkeriazko gatazken azterketa: 2003ko Irakeko kasua

azterketa burutu dugu aurretik azaldutako teoria aplikatuz. Gainera, kasu praktikoaren baitan Irakeko emakumeak ez ezik, AEBko indar armatuetako emakumeen genero rola ere aztertuko ditugu, Abu Ghraibeko kasuari soil eginez hain zuzen. Azkenik, lanaren konklusio orokorrak azalduko ditugu hasierako hipotesiak kontuan hartuz.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Nazioarteko Harremanak genero ikuspegi batetik aztertuta

2.1.1. Nazioarteko Harremanetako teoria feminista

Atal honetan Nazioarteko Harremanetan (NH)¹ azken hamarkadetan bilakaera handia izan duen teoria feministaren hainbat ekarpen aztertuko ditugu. Lehenik, sarrera laburra bezala, historikoki NHren inguruan egon diren teoria politiko ezagunenak aztertuko ditugu. Ondoren, feminitatearen eta maskulinitatearen inguruko sinesmenak aztertuko ditugu kanpo politikari keinu bat eginez. Eta azkenik, generoaren inguruko sinesmen eta rol hauen funtzionamendua ikertuko dugu analizatzeko zein modutan kategorizazio hauek forma ematen dieten nazioarteko politikari zein harremanei. Orokorrean, nazioarteko genero harremanen eta politikaren ikuspuntu konstruktiboago bat eskaintzeko helburuarekin.

Azpimarratu beharra dago NHko diziplinak tradizionalki ez duela kontuan hartu genero ikuspegi 80ko hamarkadara arte². Adibidez, NHren teoriko errealistek, Hans Morgenthauk haien artean, bereizi egin zuen politikatik nazioarteko politikaren azterketan moralitasuna eta baloreak, politika arlo “neutrala” ulertzeaz gain, “gizon politikoaren” eta “gizon ekonomikoaren” irudikapena iradokitu zuen³. Hala, Irene Rodriguezen ustez, teoria errealistak gizona “unibertso kontzeptualaren” zentroan jarriko du, gizona ezagutzaren objektua bihurtuz⁴. Nazioarteko sistema anarkikoaren arriskuak kontuan hartuz, gerra kontuan hartu beharreko aukera zela ziurtatu zuten. Gerrak egoteko aukerak txikitzeko aukera “bideragarriena” gerraren kausen jakintza zientifikoa areagotzea zen haien ustez⁵. Horrela, neoerrealistek metodologia positibista garatzea saiatu zuten, zientziaren esparruan sakonduz NHko “zientzia” objektibo bat

¹ Oharra laburduren inguruan: Gradu Amaierako Lan honetan laburduren kontuan hurrengo liburua hartu da hizpide: Brown, C. eta Ainley, K. (2009). *Nazioarteko Harremanak zer diren*. Juan Garzia Garmendia (itzul). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua (2017).

² Rodríguez Manzano, I. (2000). "Mujer, género y teoría feminista en las relaciones internacionales", *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak 2000*. 244., 249. or. Sarean eskuragarri: <http://www.ehu.es/cursosderechointernacionalvitoria/ponencias/titulo.asp> . [Kontsulta data: 2018-04-21].

³ Tickner, J.A. (1992). *Gender in international relations: Feminist perspectives on achieving global security*. New York, NY: Columbia University Press, 11-12. or.

⁴ Rodríguez Manzano, I. (2000). "Mujer, género y teoría feminista...", *op. cit.*, 262. or.

⁵ Tickner, J.A. (1997). "You just don't understand: Troubled Engagements between Feminist and IR Theorists", *International Studies Quarterly*, 41.bol., 4. zk., 618. or. Sarean eskuragarri: https://www.jstor.org/stable/2600855?seq=1#page_scan_tab_contents . [Kontsulta data: 2018-04-25].

eratzeko saiakeran ⁶. Eta modu berean “behaviouristek”, neoliberalak, liberal instituzionalek, eta bakearen ikertzaile batzuk euren teoriak lantzeko natura zientzietan eta ekonomian oinarritu ziren⁷. Horrela, jokoaren teoria (*game theory*) eta hautaketa arrazionalaren teoriak bihurtu ziren justifikazio nagusia Estatuaren interesen arabera aukerak justifikatzeko, baita kanpo politikaren “erabaki egileen” (*decision makers*) ekintzak interpretatzeko ⁸. Gauzak horrela, NHko teoria feministak proposatzen du metodologia enpirikoa bazterzea, ustez modu neutral batean jarduten duena, eta Ticknerren hitzetan, metodologia zientifiko eta neutro hauek NHren diziplinaren “despersonalizazioa” dakarte ⁹. Hau azaltzeko Robert Coxen teoria kritikoa oinarritzen da neurri batean: munduko ordenaren “normaltasuna” nor bere buruari galdetzea, eta zalantzan jartzea zein modutan egin den mundua. Dena den, NHko feministek jarrera kritikoa izango dute “problem solving”-arekiko, haien ustez planteamendu honek ez baitu desafiitzen munduko ordena. Teoria feministaren alternatibak NHtik at dauden teoria politikoa eta soziala, eta soziologiaren diziplinak akademikoak kontuan hartzea proposatzen du, hortik eratu egiten baitute feministek euren ikuspuntua¹⁰.

2.1.2 Maskulinitatea eta feminitatea: genero nozio hauen eragina nazioarteko harremanetan eta kanpo politikan

Aurreko atalean deskribatutako NHko teoriak, feminista eta Coxena ezik, neutraltasuna dute helburu. Aitzitik, generoa NHn azterketarako ezinbesteko kategoria dela uste dugu kanpo politikaren jokoan dauden logika eta praktikak ulertzeko. Honen ondorioz, atal honetan NH eta generoa izango dira azterketaren foku nagusia.

Marysia Zalewskiren arabera, generoa sozialki eta kulturalki eraikitako maskulinitate eta feminitate rolek osatu egiten dute, genero sistemaren oinarri diren ideologia, sinesmenak, hizkuntza, praktikak, etab. ¹¹. Horiek horrela, emakumeek NHn izan duten rola ikertu nahi badugu, bi nozioak kontuan hartu beharrekoak dira. Nahiz eta batak (maskulinitatea) historikoki hierarkikoki jokatu izan duen bestearekiko

⁶ Tickner, J.A. (1992). *Gender in international relations:...* op. cit., 11-12. or.

⁷ *Ibidem*.

⁸ Tickner, J.A. (1997). “You just don’t understand:...”, op. cit., 619. or.

⁹ Tickner, J.A. (1992). *Gender in international relations:...* op. cit., 12.or.

¹⁰ Tickner, J.A. (1997). “You just don’t understand:...” op. cit., 619.- 620. or.

¹¹ Zalewski, M. (1995). “Well, What is the Feminist Perspective on Bosnia?” *International Affairs (Royal Institute of International Affairs 1944-)*, 71(2), 341.or. Sarean eskuragarri: https://www.jstor.org/stable/2623438?seq=1#page_scan_tab_contents. [Kontsulta data: 2018-04-25].

(feminitatea)¹² teoriko feministen ustez; biak elkarren osagarri baitira arlo pribatuan, publikoan eta nazioartekoan¹³ eta ezin dira ulertu bata bestea aztertu gabe. Halaber, biak batera ulertu behar ditugun bitartean Zalewskik adieraziko du euren artean aurkakotasun harremana dagoela, zeren eta femeninoa izateak esan nahi du maskulinoa ez izatea, adibidez. Gainera, maskulinitatearen goraiamenaren eta feminitatearen debaluazioa konstante historikoa eta unibertsala izango da; nazio, kultura, etnia eta munduko txoko gehienetan aurkitu dezakegun tendentzia delako historian zehar¹⁴.

Halaber, J. Ann Ticknerrek adierazten duen moduan, historikoki nazioarteko politikaren eremua maskulinoa izan da eta gizonezkoen esperientzietan oinarritua izan da, nazioarteko politika “neutroa” izan da generoarekiko¹⁵. Hain maskulinizatutako eremua da, non genero harremanak ezkutatuta zeuden orain dela gutxi arte. Era berean, Cynthia Enloe adieraziko du maskulinitate eta feminitate kontzeptu tradizionalak boterearen eguneroko ariketa behar izan dute nozio hauek iraunarazteko¹⁶. Gaur egungo Estatuaren arteko harremanak eta praktikak gizonen esperientzian eta ezagutzan oinarrituz idatziak izan direla argudiatu izan dute nazioarteko eremuko feminista teorikoek (Enloe, Tickner, Zalewsky, Sjoberg) besteak beste; emakumeen esperientzia eta ezagutza isilarazita izan den bitartean. Dena dela egia da 80ko hamarkadatik analisi feministak NHko diziplina akademikoan gero eta garrantzi gehiago duela¹⁷. Baina horrek ez du ekidituko NHko praxiaren baloreak eta usteak maskulinitateari loturikoak izatea. Honek eramango gaitu nazioarteko politikaren osatu gabeko analisi politiko batekin topatzera. Hortaz, errealitatea modu konstruktiboan ulertzeko, maskulinitatearen eta feminitatearen ezaugarriak azalduko ditugu hurrengo lerroetan, nazioarteko politikarekin lotura bat eginez.

Maskulinitatea

Maskulinitatea osatzen duten sinesmen eta praktiken sistemen azalpena egiten saiatuko gara atal honetan. Lehenik arreta ipiniko dugu maskulinitateak gailentzen dituen balioetan; ondoren, maskulinitatearen eta Estatuaren eraikuntzaren

¹² Tickner, J. A. (1992). *Gender in international relations:...* op. cit., 5.or.

¹³ Enloe, C. (1990). *Bananas, beaches and bases. making feminist sense of international politics.* University of California Press, 3. or.

¹⁴ Zalewski, M. (1995). "Well,..." op. cit., 341.or.

¹⁵ *Ibidem*, 17.or eta Tickner, J.A. (1992). op. cit., 6. or.

¹⁶ Enloe, C. (1990). *Bananas, beaches, and bases...* op. cit., 3. or.

¹⁷ Zalewski, M. (1995). "Well, ...", op. cit., 339. or.

maskulinizazioari bidea emango diogu; eta azkenik, honek ahalbidetuko digu nazioarteko politikaren maskulinizazioaren azalpena ematea.

Alde batetik, **maskulinitateak** gizonen “bete beharreko” rol ideala irudikatu egiten du. Maskulinitatearen bereizgarri nagusiak izaerari dagokionez hurrengoak dira: indarra, boterea, sendotasuna, indarkeria, autonomia, burujabetasuna, eta arrazionaltasuna¹⁸. Halaber, gizontasuna (ingelesez *manliness*) eta nazioarteko politika, hertsiki erlazionatuak izan dira. Hain zuzen ere, ustez gizonekoei dagokien portaera hau goraiatua izan da nazioarteko politikan batez ere norberaren herrialdea defendatzerakoan.

Honekin lotuta, maskulinitateak zer ikusi handia du abertzaletasunarekin eta nazioaren defentsarekin, lotura zuzena duena nazioaren segurtasunarekin (ikuspegi tradizional batetik). Gauzak horrela, nazioaren eraikuntzak (*nation-building*) berresten ditu generoari loturiko botere politikoaren ideiak. Normalean nazio edo Estatu bat “eraikitzean”, honekin loturiko maskulinitate idealaren nozioak barneratzen ditugu. Esaterako, politikarien artean gizonen irudiaren protagonistak ikusiz. Onartu beharra dago badaudela emakumeak nazioarteko gizon politikarien artean, historiak ematen dizkigun adibide esanguratsuenak Margaret Thatcher, Indira Gandhi edo Jeanne Kirkpatrick dira; gaur egun Angela Merkel edo Theresa May. Enloek argudiatuko du emakume hauek ez direla ausaz aukeratuko; aldiz, emakume hauek maskulinizatutako portaerak ondo ikasita eta barneratuta dituztelako, gizonen pribilegio politikoak ez mehatxatzeko¹⁹. Beraz, nazioaren eraikuntzan pentsatzean, nazio “maskulinoaren” eraikuntzan pentsatu dezakegu. Halaber Estatuak rol paternalista barneratuko du. Hau da, estatuak genero rol tradizionalak ezarritako aita tradizionalaren irudikapena beteko du bere “familiar” (gizartea) babes eta segurtasuna eskainiz, boteretsua eta indartsua delako, eta arrazionalki jokatzeko duelako. Segurtasunaren harira, nazio eraikuntzaren deskribapen hau segurtasunaren ikuspegi tradizionalan oinarritzen da. Hain zuzen, interpretazio tradizionalak Estatuaren segurtasunaren hurrengo oinarritzeko kontzeptuak azpimarratuko ditu: batetik, Estatuaren arteko oreka, eta bestetik, interes nazionala²⁰. Era berean, Estatuaren segurtasun interesen zentroan Estatuaren aurkako mehatxu militarrik

¹⁸ Tickner, J. A. (1992). *Gender in international relations:... op. cit.*, 3.or.

¹⁹ Enloe, C. (1990). *Bananas, Beaches and Bases...op. cit.*, 6-7. or.

²⁰ Zirion Landaluze, I. (2017). “Segurtasuna”, Ander Gutiérrez-Solana Journoud (koord.) (et al.) *Nazioarteko Harremanetako 14 Giltza-hitz*. Bilbo: EHU, Argitalpen Zerbitzua. (113. or.)

egongo dira ²¹. Honen aurrean, ikuspuntu feministak jarrera kritikoa izan du segurtasunaren enfoke tradizionalarekiko; hain zuzen, feministek aldarrikatzen dute enfoke tradizionalak ez duela aintzat hartzen emakumeen esperientziak eta ondorioz, generoaren estruktura patriarkalak alde batera uzten direla, gizonen esperientzietatik abiatutako segurtasuna eta Estatueraikitze ²².

Estatuaren segurtasunaren enfoke tradizionalak eraiki dezakeen rol paternalistari jarraituz, gizartearen feminizazioa aurkituko dugu. Hau babestu behar den subjektu ahula bezala irudikatuko da, baina aldi berean bere baitan nazioaren ohorea eta bertutea bermatzen duena. Horrez gain, Estatuera da ingelesez esaten den *decision making*-a egiten den eremua; izan ere, Estatuera ezartzen ditu portaera arauak (konstituzioa, alegia), eta epai sistema (eremu juridikoa) antolatzen du. Gainera Estatuera berak erabakitzen du gizartearen antolaketa era (antolaketa politikoa zein administrazio publikoa); modernizazioaren eta garapenaren eragile nagusia izateaz gain. Orokorrean, sinesmen eta praktiken sistema honek Estatuaren maskulinizazioa ahalbidetuko du. Orain, Ticknerrek eta Enloek adierazten duten bezala, Estatuaren barnean emakumeen esperientziak eta ikuspuntuak ez dira kontuan hartu duela gutxi arte. Beraz imajina dezakegu, Estatu mailan emakumearen irudikapena urria izan denez politikan, nazioarteko politikan urriagoa izango dela. Nazioaren eraikuntzaren, Estatuaren eta maskulinizazioaren harreman hau ezinbestekoa dela uste dugu, hurrengo atalean ikusiko dugun NHn jokabide hegemonikoak justifikatzeko eta normalizatzeko, batez ere AEBn partetik.

Honek bidea emango digu nazioarteko politikan arreta jartzeko. Nazioarteko politika erronkaz beteriko esparrua izan da historikoki ²³, Enloe jarraituz, esparru hau maskulinitateak irudikatzen dituen gizonaren rol idealarekin erlazionatuta izan da tradizionalki. Orain, nazioarteko politika eremu lehiakorra eta arriskutsua irudikatuta izan den heinean, badirudi maskulinitatearen rolek boterearen toki hau bete egin dutela. Hain zuzen ere, gizona koei lotutako seriotasun, sendotasun, autonomia, boterea, eta arrazionaltasuna era bikain batean egiten dute bat nazioarteko boterearen

²¹ *Ibidem*.

²² Pérez de Armiño, K. (2011). “¿Más allá de la seguridad humana? Desafíos y aportes de estudios críticos de la seguridad”, *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak* 2000, 291. or. Sarean eskuragarri: http://www.ehu.es/cursosderechointernacionalvitoria/ponencias/pdf/2011/2011_5.pdf . [Kontsulta data: 2018-05-26].

²³ Enloe. C. (1990). *Bananas, beaches, and Bases...op. cit.*, 12. or.

imaginarioarekin. Horregatik autore batzuk politikaren maskulinizazioa lotu egiten dute²⁴ alor honetan askotan beharrezkoa den erabakigarritasunaren dohainarekin, eta esparru honek, ustez, eskatzen duen arrazionaltasunarekin, ausardiarekin eta lehiakortasunarekin. Kasu honetan adibide oso argigarria dugu Gerra Hotzaren testuingurua eta momentuko bi superpotentziek, AEBk eta Sobietar Batasunak, eraikitako mundu bipolarra. Hain zuzen, mundu bipolar horrek erakutsi zuen hainbeste tentsioaren artean politikari baten gizontasuna frogatzeko saio erabakigarria arriskatzea zela. Hortaz, politikari horrek erakutsi egiten zuen bere gobernatzeko gaitasuna²⁵, gizon boteretsu, indartsu eta ausarta zela erakutsiz. Modu honetan, lehen aipaturiko maskulinitatearen ezaugarri nagusiekin bat eginez. Hala ikusi dezakegu nazioarteko politikaren esparruan jokatzeko beharrezkoak diren ezaugarriak maskulinitateari lotutakoak direla, baina, Cynthia Enloe parafraseatuz, “non daude emakumeak”²⁶?

Feminitatea

Atal honetan feminitatearen ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu eta hauek nazioarteko politikaren eremuarekin lotuko ditugu azalpen argiagoa eta praktikoagoa egiteko saiakeran, aldi berean maskulinitatearekin lotuz.

Lehen esan bezala, historikoki mendebaldeko gizartearen imaginarioan gizontasunaren balioak goraiatu diren bitartean, feminitateari lotutakoak gutxietsi dira; generoen arteko desberdintasunak eta kategorizazio hierarkikoa eraginduz. Gauzak horrela, feminitatearen analisi honetan berebiziko garrantzia izango du esparru publikoaren eta pribatuaren arteko zatiketak, kategorizazio honetan ikusi ahalko dugu errealitatearen ispilua. Generoaren kategorizazioak kulturak, etniak eta herrialdeak gainditzen dituen arren, badago nolabaiteko ezberdintasuna mendebaldeko emakumeengan irudikatutako feminitatea eta mendebaldekoak ez direnen artean; hau aztertzea ezinbestekoa dela pentsatzen dugu NH zein politika hobeto ulertzeko.

Lehenik eta behin, historikoki generoa bi kategoriek osatu badute eta horietatik bat goraiatua izan bada, eta hierarkiko jokatu izan badu, horrek esan nahi du bestearen devaluazio moralak zein sozialak eman dela. Azken hau feminitatea izan da. Gainera, badago gizartean kategorizazio hau “normala” edo “naturala” dela pentsatzeko joera,

²⁴ Ibidem.; Tickner, J.A. (1992). *Gender in international relations:... op. cit.*, 17. or.

²⁵ Enloe. C. (1990). *op. cit.*, 12. or.

²⁶ *Ibidem*, 7. or.

Ticknerrek eta Enloek azpimarratu bezala. Ustez existitzen den normalizazio honek iradoki egin die NHko teoriko feministei dominazio hau “normalizat” antzemateko existitu daitekeela sozialki eraikitako ideien sistema bat ideologia hau babestu egiten duena. Izan ere, generoen arteko subordinazioa “normala” izateak gonbidatu die feministei, normalizazioaren sustraiak aztertzea, logika patriarkalak agerian jarri arte.

Bigarrenik, feminitate idealaren ezaugarri nagusiak aipatuko ditugu. Historikoki, mendebaldeko emakumeak ahulak, beldurtiak, zalantzatiak (beraz, ausardiarik ez), eta besteen, normalean gizonezkoen, mendekoak irudikatuak izan dira. Halaber, emakumearen ustezko “joera naturalak” (etxeke andrea izatea, haurren zaintza, sentibera izatea, indar fisiko askorik behar ez duten zereginak egitea, etab) balioudun bihurtzen dute etxeke bizitza pribatuan eta gizon erosoan inguruan. Aldiz, gizona izango da bizitza publikoaren zama eramango duena. Horrez gain, emakumea laguntzeko prest egongo da, eta esker onez sakrifikatuko da besteekiko²⁷. Era berean, eskertuko du gizon bat bere ondoan izatea, gizonaren ezaugarri naturalekin bera eta familia babesteko. Laburbilduz, eskertasun feminizatua funtsezkoa izango da sistema patriarkalaren eraketan²⁸.

Bestalde, emakumeen sexualitatea gizartearen muinaren sinboloa bihurtuko da. Hau da, bere birjinitatea babestu beharrekoa da eta nazioaren ohorea emakumearen sexualitatean datza, emakumeek sortzen baitituzte hiritarrak eta euren eskuetan datza nazioa defendatzeko prest egongo diren hurrengo hiritarren zaintza. Hari beretik, gizontasuna neurri batean emakumearen sexualitatearen kontrolean oinarritu da ere. Ondorioz gatazka armatuen testuinguruan emakumeen aurkako sexu indarkeria kasuak, Bosnian eta Ruandan bezala, nazioaren bertutearen aurkako erasotzat hautemango dira. Beraz, alde batetik emakumeak babestu beharreko subjektuak bihurtuko dira, feminitate idealaren aburuz ahulak direlako eta nazioaren ohorea euren gorputzetan eta sexualitatean dagoelako. Eta beste aldetik, emakumeak erasotu eta konkistatu daitekeen subjektuak dira, adibidez sexu indarkeria gerrako arma gisa bihurtuz²⁹. Logika honen arabera, teoriko askok militarizazioarekin lotu izan dute logika hau; gizonezkoek emakumeak defendatzen dituztenean, nazioaren zaindaria bihurtzen baitira.

²⁷ Enloe, C. (2007). *Globalization and Militarism: Feminists Make The Link*. Lanham, Rowman & Littlefield, 67. or.

²⁸ *Ibidem*.

²⁹ Mendia, Irantzu. (2009). “Aportes sobre el activismo de las mujeres por la paz”. *Cuadernos de Trabajo de Hegoa*, 48. zk., 12. or

Ondoren, eremu publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa aztertutako rolek in lotuz. Ticknerrek proposatutako bi esparruen bereizketaren adibidea hurrengoa da: publikoa *versus* pribatua, objektiboa *versus* subjektiboa, norbera *versus* bestea, arrazoia *versus* emozioa, autonomia *versus* dependentzia, kultura *versus* natura³⁰. Horiek horrela, pare bakoitzaren lehenengo ezaugarria maskulinitateari lotuta dago eta bigarrena feminitateari, Ticknerren ustez. Hortaz, feminitate ideala esparru pribatuan ulertu behar da, zaintza lanekin batera eta besteekiko sakrifizioa, pazientzia eta apaltasuna kontuan hartuz. Logika hau erabili izan da hainbat teorikoen ustez emakumeak, eta maskulinitate hegemonikoaren³¹ rola betetzen ez duten beste gizabanako batzuk (adibidez homosexualak), debalutzeko eta politikaren organo erabakitzaileetatik at mantentzeko³². Hain zuzen ere, politikaren eremua esparru publikoa izanik, eremu arriskutsua baita Enloen arabera³³, non boterea, ausardia eta erabakigarritasuna beharrezkoak diren, aurretik aipatu bezala. Hauek maskulinitateari loturiko irizpideak izanik. Kontrastez, ahultasuna nazioarteko politikaren logikan arrisku bat izango da³⁴. Hortaz, nazioarteko politikaren eremua hierarkikoa eta lehiakorra izanik, non “agresioa” beharrezkoa den, maskulinitateak eta biolentziak bat egiten dute gizentasunaren irudia indartzeko eta emakumea boteretik eta eremu erabakitzaileetatik at gelditzeko. Politikaren agente ez izateak emakumeak subjektu osagarriak bihurtzen dituela onartuko dute feministek. Horrela, honek eramaten gaitu feminitatearen beste ezaugarri bat aztertzeraz: edertasuna.

Cynthia Enloek adierazten duen moduan edertasunak garrantzizko papera jokatuko du emakumeen feminizazioan nazioartean. Horrela, bi “feminizatutako edertasun” mota bereiztuko ditu Enloek³⁵: alde batetik, “agertzen dena” (*the revealed*) eta bestetik “ezkutatzen dena” (*the hidden*). Lehenengo irudikapenak erantzungo lioke gizarteak emakume batetik espero duenari (subjektu pasiboa, ederra, apainduta, zuria, mendebaldarra, modernoa, gaztea); eta bigarrenaren adibidea beloaren atzean

³⁰ Tickner, J. A. (1992). *Gender in international relations:...* *op. cit.*, 8.or.

³¹ “Maskulinitate hegemonikoa”ren kontzeptua erabiltzean Robert P. Connellek aipatutakoari deritzogu. Maskulinitate honek erreferentzia egiten dio hegemoniari, botereari eta opresioari, eta erabiltzen da maskulinitatearen ezaugarriak “larriagotzen” direnean eta hortaz generoen arteko ezberdintasunak biderkatu egiten direnean. Gizonezkoek “posizio menderatzailea” izango dute testuinguru honetan. (Hurrengo erreferentzian oinarritutako azalpena: Pérez de Armiño, K. (2011). “¿Más allá de la seguridad humana?...”, *op. cit.*, 294. or.)

³² Enloe, C. (1990). *Bananas, beaches, and Bases...* *op. cit.*, 16. or.

³³ *Ibidem*, 12. or.

³⁴ Tickner, J.A. (1992). *op. cit.*, 3. or.

³⁵ Enloe, C. (1990). *op. cit.*, 9. or.

ezkututzen den emakumeari erantzungo dio, normalean Ekialde Hurbilekoa izanik. Horrez gain, feminitatearen ezaugarrien artean ezin dugu ahaztu amatasuna, eta emakumeek duten umeak “sortzeko” gaitasuna, feminitateari loturiko garrantzizko ezaugarriak baitira. Amatasunak duen garrantzia feminitatearen irudikapenean azaltzeko, interesgarria iruditu zaigu Latino Amerikako Marianismoaren ideologia ikastea. Evelyn Stevensen lehen aldiz definituko du Marianismoa 1977an, “emakumeen nagusitasun espiritualaren kultoa” bezala³⁶. Era berean ideologia honek Ama Birjinaren irudia goraipatuko du, Birjinak duen nagusitasun morala ospatuz, eta esparru pribatuan emakumearen ahalduntzea indartuz. Aldiz, gizonak, “matxoaren” kulturaren protagonistak eta bizitza publikoaren aurpegia dira. Alegia, gizartearen kontrola duena, indartsua, erabakigarria, eta agresiboa dena, emakumearen birjinitatea zaintzeko prest baitaude. Arrazak berebiziko garrantzia izango du Marianismoan, feminitatearen eta moralaren gorentasunaren gailurra Ama Birjinak irudikatzen dituen; Birjina azal zuriko subjektua izateak argitu ditzake bidean dauden botere kolonialen logikak.

2.2. Emakumeak gatazka armatuetan eta indar armatuetan

2.2.1. Emakumeen rola gatazka armatuetan

Aurreko atalean azaldu egin dugun amatasunaren ohoreari lotuta, badagoela nolabaiteko imajinarioa gatazka armatuaren inguruan. Hau da, Zalewsky-k adieraziko du “gizona-gatazka” eta “emakume-bakea”-ren kontzepzioak era naturalean barneratu egin direla, gerra sexuen arteko bereizketaren arabera definitua izan delako historikoki³⁷. Hari beretik, teoriko feminista asko bat datoz gerra sexuen arteko ezberdintasunaren adierazpen argienetarikoa dela nazioarteko politikan. Gainera, Carmen Magallónek azalduko duenez, gerraren eta gatazka armatuaren pertzepzio tradizionalak imajinarioaren parte dira, horregatik batzuek lotzen dituzte borroka, biolentzia eta gerra gizonarekin; emakumea “biktima globala” bezala irudikatzen den bitartean³⁸.

Gatazka armatuetan edo gerretan emakumeak betetzen dituen rola ezberdinak izan daitezke, beraz, zenbait rol aztertuko ditugu. Alde batetik emakumea biktima bezala aztertuko dugu, gero emakumea biolentzia egikaritzen duen agente bezala, ondoren

³⁶ Stevens, Evelyn P. (1977). “Marianismo: La otra cara del machismo en Latinoamérica”, Pescatello, Ann (1977). *Hembra y macho en Latinoamérica: Ensayos*. México, ed. Diana; 123.or.

³⁷ Zalewsky, M. (1995). “Well, ...” *op. cit.*, 349.or.

³⁸ Magallón, C. (2004). “Las mujeres como sujeto colectivo de construcción de paz”, *Cuadernos Bakeaz*, 61. zk., 2. or. eta Enloe, C. (1990). *Bananas, beaches and bases... op.cit.*, 15. or.

emakumea bakearen aldeko agentea izanik. Horren harira, militarizazioaren feminizazioan sakonduko dugu, berebiziko garrantzia duelako Irakeko kasuan.

EMAKUMEAK BIKTIMAK BEZALA

Lehenengo eta behin, Irantzu Mendiari jarraituz emakumeak gatazka armatuetan biktimak izanik hainbat modutan pairatu ditzakete gatazkaren ondorioak. Mendiaren arabera emakumeak gizonak bezala erailduak, zaurituak, eta torturaren biktimak dira. Emakumeak aldiz, genero indarkeria espezifiko baten helburua dira, eta emakumeak izateagatik erasotuak dira. Gainera, gerraren barnean indarkeria sexuala omen da gatazkan jazotzen den jazarpen dokumentatuena emakumeen artean³⁹. Emakumearen biktimizazioa azaltzeko, Zalewskyk azalduko du borroka eta maskulinitatea sozialki eraikitako kontzeptuak direla, baita historikoki erlazionatuak ere. Ondorioz, hemen ikusi dezakegu maskulinitate eta feminitate nozioek bat egiten duten modua: batetik, gizona borrokan ari den bitartean bere gizontasuna babestu eta erakutsi behar du; bestetik, emakumeen feminitatea babesten ari da, nazioaren ohorea babestuz.

Gatazka armatuetan gertatzen den indarkeria sexualaren gaineko jakintza ez da berria, hain zuzen Carmen Magallónnek adierazitako “biolentziaren naturalizazioa”⁴⁰ gerraren gidaliburuan parte bada. Hori dela eta, emakumeen aurkako biolentziaren legitimazioarekin amaitzeko, aurreko hamarkadan Jugoslavia ohiko eta Ruandako gatazketan gertatutako emakumeen kontrako indarkeria sexualaren ondorioz⁴¹, Segurtasun Kontseiluak 1325. ebazpena berretsi zuen 2000. urtean. Ebazpenak gatazka armatuetan jazotzen den emakumeen aurkako bortxaketak eta indarkeria sexuala gerrako krimenak bezala zigortuta izango dira. Era berean, ebazpenak aurrerapauso bat suposatuko du emakumeek gerretan pairatzen duten indarkeria sexualaren kontzientziazioan eta zigorrean. Hain zuzen ere, emakumeen bortxaketa eta abdukzioa gerrarako estrategia bihurtu baita etsaia hondatzeko⁴², emakumeen osotasuna eta etsaiaren maskulinitatea gutxiesteko praktika bezala.

Rol honen arriskuei dagokienez, batetik emakumeen indarkeria sexualak albo kalte larriak eragin ditzake: batetik, ondorioak osasun fisikoan besteak beste, giza

³⁹ Mendi, Irantzu. (2009). “Aportes sobre...”, *op. cit.*, 12. or.

⁴⁰ Magallón, C. (2004). “Las mujeres como sujeto...” *op. cit.*, 2. or.

⁴¹ Estimatu egiten da Jugoslavia ohiko gatazkan 20.000 eta 50.000 arteko emakumeek bortxaketak sufritu zituztela, Ruandako Gerra Zibilean berriz, kopuru hau baino bost aldiz gehiago. (Mendi, I. (2009). *op. cit.*, 12.or).

⁴² Mendi, I. (2009). *Ibidem*.

immunoeskasiaren birusa (GIB) edo haurdunaldi arriskutsuak. Bestetik, osasun fisikoaz aparte, emakumearen komunitatearen bizitza ere kaltetu dezake, hala nola, kultura batzuetan ohoreak duen esanahia dela eta, bortxaketa batek suposatu dezakeen estigmatizazio soziala. Azken honek emakumearen biktimizazio bikoitza suposatu dezake, Irantzu Mendiaren ustez⁴³. Honen adibidea Iraken ohorearen izenean burututako krimenak dira. Emakumeen aurkako indarkeria hau familian edo komunitatean ematen da, emakume edo neska batek “portaera immorala” izan duenean. Askotan familiako gizonezkoak dira emakumeak hiltzen dutenak, familiaren ohorea iraintzeagatik, nahiz eta badaude kasuak non emakumeak edo neskak berak bere buruaz beste egingo duen. Hilketa hauek burutzeko arrazoi nagusien artean, bortxaketa baten biktima izatea izan daiteke edo ezkontzeari uko egitea⁴⁴. Beraz, kasu honetan, emakumeek biktimizazio bikoitza jasango dute.

Aitzitik, emakumeak gatazka armatuen biktimak izatea beste aukerak eskaini egingo ditu, hala nola: laguntzarako sareak sortzea emakume biktimen artean elkarren laguntza eskaintzeko, edo beste hitzetan, sororitatea. Hau da, emakumeen arteko elkartasuna ezartzea.

Nazioarteko komunitateak baloratu zuen gatazka armatuetan gertatzen diren bortxaketa masiboak aitortu ziren giza eskubideen urratzea zirela, Jugoslaviaren eta Ruandako gerren harira. Gainera, Nazioarteko Zuzenbideak bortxaketa masiboak eta esklabotza sexuala gizateriaren aurkako krimenak kontsideratzen ditu.

EMAKUMEA BIOLENTZIA EGIKARITZEN DUEN AGENTEA

Nahiz eta gatazka armatuetan emakumearen irudikapen tradizionala biktimaren irudia den, honek ez du esan nahi emakumeak bere boterea eta agentzia ez jardutea. Aitzitik, badaude emakumeak biolentziaren sustatzaileak direnak.

Honen adibide historiko argienetarikoa askapen nazionalako mugimenduak eta gerrillen mugimendu iraultzaileak ditugu, Latinoamerikan (El Salvador eta Nikaraguan), Afrikan (Eritrea, Angola eta Namibia) edo Sri Lankan. Emakumeak talde armatu hauetan gehitzeko motibazioen artean, hiru arrazoi nagusi desberdindu ditugu.

⁴³ *Ibidem*.

⁴⁴ Amnistía Internacional (2005). “Irak. Decenios de sufrimiento: es hora que las mujeres reciban un trato mejor. Amnistía Internacional, London: UK. Sarean eskuragarri: <http://web.amnesty.org/library/Index/ESLMDE140012005> . [Kontsulta data: 2018-05-18].

Batetik, batzuetan emakumeak borondatez sartzen dira, interesen defentsan talde hauekiko dute lotura etnikoak, edo komunitatea dela eta. Bestetik, beste aukerarik ez duten emakumeek eta beraiek nahi gabe talde armatu baten kidea bihurtzen dira “biziraupen estrategia” bezala. Eta azkenik, landa eremuetan bizi diren emakume batzuk euren familien kontrol “zapaltzaitetik” ihes egiteko aukeratzen duten bizimodua da; uko egin nahi dietelako emakume bezala bete behar dituzten rol eta bizimodu tradizionalai. Azken honetan, emakumeek mugikortasun gehiago bilatzen dute baita askatasun pertsonalaren areagotzea ere ⁴⁵.

Emakumeak biolentziaren agenteak bihurtzeak aukerak eta arriskuak eragin ditzazke. Aukerei dagokienez, talde armatuen borrokalariak edo baseak izateak eragiten du emakumeen ahalduntzea areagotzea. Hain zuzen, rol berriak egikarituak dituzte, orain arte gizarteak debekatutakoak; gainera, rol hauen ikasketak konfiantza areagotuko du haiengan, eta orokorrean beste motatako ikasketarako sarbidea izango dute. Honek genero harreman tradizionalen desafiatzea eragingo du. Izan ere, rol honek ere baditu arriskuak. Alde batetik behin gatazka amaituta fenomeno arrunta izango da gatazkan zehar emakumeen rola eta garrantzia ez aitortzea, gatazkaren ebazpenean emakume borrokalarien marginalizazioa eraginez. Beste alde batetik, badaude komunitateak zeintzuk zigortu egiten dituzten emakume hauek, komunitateak emakume batengatik espero dituen bete beharreko rol femeninoei uko egiteagatik ⁴⁶. Esaterako, Laura Sjobergek narratu egiten du Palestina eta Israel arteko gatazkan, bonba suizida burutzen dituzten borrokalarien %7 emakumeak dira eta kasu honetan, emakume hauek “monstruok, maltzurak” irudikatuak dira, zeintzuk “normaltasuna eta euren feminitatea galdu dutenak” ⁴⁷.

EMAKUMEAK BAKERAKO AGENTEAK

Historikoki biolentzia gizonezkoekin lotua izan da, eta alderantziz, bakea emakumeekin. Bakearen eta identitate femenino honen gainean badaude hainbat eztabaida, oraindik ebatzi ez direnak. Hurrengo paragrafoetan lan honetarako esanguratsuenak aipatuko ditugu, eta gainera, bide batez, hurrengo atalerako bidea irekiko digu.

⁴⁵ Mendia, I. (2009). “Aportes sobre...”, *op. cit.*, 12. or.

⁴⁶ *Ibidem*.

⁴⁷ Sjoberg, Laura (2010). Women fighters and the "beautiful soul" narrative. *International Review of the Red Cross*, 92(877), 64. or. Sarean eskuragarri: <https://doi.org/10.1017/S181638311000010X>. [Kontsulta data: 2018-03-12].

Halaber, ebatzi gabeko lehenengo eztabaida “esentzialismoa” versus “diferentzia” gatazkari erantzuten dio. Batetik, argudiatzen da bakearen aldeko kausa emakumeen “naturari” erantzun egiten diola. Baina bestetik, pertsonen izaera prozesu sozial eta politiko ezberdinen esku dagoela uste da. Bigarren eztabaida esentzialismoarekin erlaxionatuta dago, eta mahai gainean jarriko du zein neurritan eragiten duen emakumeen amatasunaren gaitasuna bakearen alde mobilizatzeko. Bakearen aldeko mugimendu askok antolatuta izan baitira amak (izan) diren emakumeen artean, esate baterako Maiatzaren Plazako Amak Argentinan⁴⁸. Bestalde argudiatu da, amatasuna dela eta emakumeen rol ezberdinak azpimarratzen direla, besteak beste: zaintzailea izatea eta bizitzaren sostengatzaileak. Era berean, askotan lotu izan da amatasuna maitasunarekin, zaintzarekin eta babesarekin. Irantzu Mendiak azpimarratuko du eztabaida honen kritika nagusia da erantzun egiten diola logika patriarkalari emakumeek gizartean betebeharreko paperari dagokionez. Hirugarren eztabaida, emakumeak armadaren parte hartzeari deritzo. Badaude feminismitik argudiatzen dutenak generoen arteko berdintasuna gizarteko sektore eta alderdi guztietan eman behar dela, beraz emakumearen partaidetza armadan guztiz defendatzen dute. Ordea, beste postulatu feminista batzuetatik armadak generoen arteko ezberdintasuna areagotzen duen eremua dela adierazten dute, hain zuzen, lotura larriena duena maskulinitatearen goraiamena eta mendekotasun femeninoarekin.

2.2.2. Militarizazioaren feminizazioa

Aurreko atalean emakumearen rol ezberdinak aztertuz ikusi dugu gatazka armatuen analisisetan genero ikuspegiak zati garrantzitsua jokatu dezakeela. Atal honetan, azken urteetan eman den militarizazioaren feminizazioa aztertuko dugu.

Feminizazioa norbaiti (gizona edo emakumea) edo talde bati ustez ezaugarri femeninoak diren horiek inposatzean datza; normalean honen asmoa subjektu edo taldearen estatusa gutxiatea izanik⁴⁹. Aurretik aipatu bezala genero estereotipoen arabera tradizionalki lotu egin da emakumea bakearen asmoarekin eta gizona biolentzia eta gatazkarekin; hori dela eta indar armatuak gizonez osatutako erakundea izan da. Hain da nabarmena indar armatuetan ematen den generoen arteko ezberdintasuna non

⁴⁸ Perea Ozerin, I. (2017). “Acción colectiva de las mujeres y procesos emancipadores en América Latina y el Caribe. Una aproximación desde los casos de Cuba, Bolivia y Ecuador”. *Foro Internacional* 230, LVII. Bol. 2017 (4), 919. or. Sarean eskuragarri: <http://forointernacional.colmex.mx/index.php/fi/article/view/2473/2425> . [Kontsulta data: 2018-05-08].

⁴⁹ Enloe, C. (2007). *Globalization and...* *op. cit.*, 95.or.

soldadua izendatzean jazotzen den, Enloek eta Sjobergek dioten bezala, soldaduak eta aldi berean emakumeak direnei, ez zaie “soldaduak” deituko, baizik eta “soldadu emakumeak”⁵⁰. Historikoki gatazketan emakumeak baketsuak eta babestu behar diren subjektutzat irudikatuak izan direnez, indar armatuen eta gatazkaren narratiban agentzia duen subjektu moduan baztertuta geratu dira⁵¹. Hain zuzen ere, Laura Sjobergek historian zehar emakumeak armadaren parte zein soldaduak izan diren gatazken zerrenda luzea aipatuko du, aitzitik, nahiz eta haren ustez borrokalari hauen lanak berebiziko garrantzia duen, gerrarekiko “inozoa” den emakumearen narratibak itzala egin izan dio borrokalariarena⁵².

Bestalde, militarizazioaren feminizazioaren inguruan Nancy Huston gerraren eta segurtasunaren diskurtoetan emakumearen estereotipo feminizatua aztertuko duen lehena izango da. Era berean, emakumearen eta gerraren inguruko genero ikuspuntu ezagunetarikoa Jean Elshtainek eta bere “*just warriors*” eta “*beautiful souls*” -ena da. Elshtainek bi istorio identifikatuko ditu Estatuak erreproduzitzen duten gerraren narratiban: batetik, soilik soldadua dena (“*just warriors*”) eta bestetik arima ederra duena (“*beautiful soul*”)⁵³. Elhstainek argudiatuko du soldaduak ez doazela gerrara etsaia erailtzeko, baizik eta gerrara doaz gerraren “asmorako hiltzeko”⁵⁴. Testuinguru honetan, emakumeak konfliktoaren objektua eta aldi berean, gerraren asmoa bihurtuko dira Sjobergen ustez, euren arima ederraren arabera inozoak direlako gerrarekiko eta bere bizitzaren kalitatearekiko; horregatik gizon soldaduaren babesa beharrezkoa du. Gure ikerketara aplikatuz, Elhstainen arabera behin “arima ederrak” indar armatuaren parte izanda, nekez aurkituko dugu emakumearen irudikapena “soilik soldadua den” gizona bezala. Hari beretik, Cynthia Enloeren arabera emakumearen partaidetza armadan soilik ulertuko da erakundea maitasunez hornituko duen subjektua eta aldi berean gerraren gaiztakeriak gainditzeko laguntza morala eta logistikoa ematen duen subjektu bezala⁵⁵. Emakumeak armadaren barruan sinbolikoki gerra irabazteko behar den ongitasuna eta araztasuna barne hartuko du, feminitatearen rol tradizionaleri

⁵⁰ Sjoberg, L. (2007). “Agency, Militarized Femininity and Enemy Other: Observations From the War in Iraq”. *International Feminist Journal of Politics*, 9 (1), 83. or. Sarean eskuragarri: <https://doi.org/10.1080/14616740601066408> . [Kontsulta data: 2018-04-25].

⁵¹ Sjoberg, L. (2010). “Women fighters and the “beautiful soul” narrative”. *op. cit.*, 55. or.

⁵² *Ibidem.* 57-58. or.

⁵³ *Ibidem.*

⁵⁴ Elshtain, J.B. (1987). *Women and War*. University of Chicago Press.

⁵⁵ Enloe, C. (2007). *Globalization and...* *op. cit.*, 66.or.

jarraituz⁵⁶. Elhstainen azterketaren arabera eta generoen estereotipoen logika tradizionalari jarraituz, militarizazio femeninoa apolitikoa, biolentziarik gabe eta tradizionalki femeninoa izango litzateke. Honi jarraituz, Cynthia Enloek azpimarratzen du militarizazioaren feminizazioak ez duela kezkarik suspertuko indar armatuetan existitzen den maskulinitatearen abantailak eta logika “dominatzaileak” desafiatu arte; eta emakumeen indarrak kontrolpean egon bitartean⁵⁷.

Bestetik, armadaren barruan emakumeen partaidetzaren kopuruaren handiagotzea modernizazioarekin eta aldi berean militarizazioaren globalizazioarekin lotu egin izan du Cynthia Enloek. Hau da, bere ustez zenbat eta emakume gehiago egon armadan, orduan eta “modernoagoa” dirudi emakume soldaduaren irudia. Hainbat arrazoi direla medio: batetik, tradizionalki maskulinitateari lotutako esparruan sartzen ari delako, emakume soldaduak erakutsi egiten baitu indarra duela, eta armak hartu ditzakeela. Ondorioz, esan daiteke emakume soldaduak apurtu egiten dituela feminitatearen rol batzuk, esate baterako emakume ahularen irudiarekin, eta emakume (soldadua) babestu behar den subjektua izan beharrean, bere herria babestu egiten duen agentean bihurtzen da⁵⁸.

Bestalde, errealitatera eramanez, AEBko armadaren emakumeen kopurua bikoiztu egin zen 1991tik 2003ra⁵⁹. Datuak ikusita, printzipioz badirudi fenomeno honek emakumearen ahalduntzea ahalbidetuko duela arlo militarrean eta segurtasunean. Honen harira, badago iritzien arteko desadostasuna teoriko feministen artean, emakumeen partaidetzari buruz arlo militarrean. Alde batetik Iparramerikako feminista liberalek neurri handi batean emakumeek armadan izen ematea bultzatuko dute. Hauen argudio nagusia emakumeen berdintasunaren eskubidearen aldeko diskurtsoan oinarrituko dute. Haien ustez, arlo militarrean emakume eta gizon soldaduen arteko berdintasuna posiblea da, emakumeak borrokatzeko duten aukera berdintasuna goraiatuz. Gainera, feminista liberal hauek esango dute emakumeak armadaren parte izan daitekeela, euren identitate “femeninoa” galdu gabe. Era berean, haien aburuz emakumeen presentzia armadan “onuragarria” da maskulinitateari lotutako estereotipoak desafiatzen dituztelako⁶⁰. Beste alde batetik, eta iparamerikar feminista liberalei erantzunez, badago beste sektore

⁵⁶ *Ibidem.*

⁵⁷ Enloe, C. (2007). *op. cit.*, 66. eta 95.or.

⁵⁸ Enloe, C. (2007). *op. cit.*, 63. or.

⁵⁹ Sjoberg, L. (2007). “Agency, Militarized Femininity and Enemy Other: ...”, *op. cit.*, 82. or.

⁶⁰ Jeffreys, S. (2007). “Double jeopardy: Women, the US military and the war in Iraq”. *Women's Studies International Forum* 30 (1), 17. or. Sarean eskuragarri: [Kontsulta data: 2018-05-04].

ideologiko bat emakumeen presentziari buruz arlo militarrean ikuspuntu ezberdina duena, liberalekin konparatuz. Feminista hauek argudiatuko dute, emakume eta gizon soldaduen arte berdintasuna armadaren barnean nahiko “bideraezina” dela, hainbat arrazoi direla medio. Lehenik eta behin, indar armatuak erakunde maskulinoa delaren ideiatik abiatuz, Sheila Jeffreysek argudiatuko duen bezala, erakundeak berak funtziona dezan maskulinitatearen premia du⁶¹. Honekin bat etorriko da Marysia Zalewsky, honek ere argituko du militarizazioaren ezaugarri deigarrienak maskulinitatean daudela oinarrituta, hain zuzen ere maskulinizatutako kultura delako mendebaldekoa. Beraz, indar armatuek proiektatzen duten irudia guztiz maskulinizatutako irudia baita; hori dela eta, emakumeen parte hartzea indar armatuetan erronka moduan hartu egin da NHn, gizontasunaren estereotipoak desafiatzeko⁶². Hari beretik, Sheila Jeffreyk ez du feminista liberalen ikuspuntua partekatuko hain zuzen ere haren ustez dominazio sexuala indar armatuen oinarritariko bat delako, bereziki gizonengandik emakumeekiko gertatzen dena. Halaber, autore hauek azpimarratu egiten dute AEBko indar armatuetan emakumearekin loturiko “epitetoak” erabiltzen dituztela irain bezala. Esate baterako 2003ko Irakeko gerra bitartean, Irakeko Abu Ghraibeko espetxean, soldadu estatubatuarrek irakiar presoak torturatzeko erabiltzen zuten modu bat, presoak emakumeetan bihurtzea zen. Sozialki eraikiak izan diren emakumeen ustezko jarrerak eta akzioak antzeztu behar zituzten presoek, umiliazio moduan⁶³.

Hortaz, datuak arretaz aztertzea beharrezkoa da errealitatea hobeto ulertzeko, eta militarizazioaren feminizazioaren ulermen zabalagoa izateko. Adibide bezala Enloeren analisisa aipatuko dugu non emakumeak AEBko armadaren parte izanda, feminitateari lotutako lan esparruak betetzen dituzten gehienbat, besteak beste: erizaintza, administrazioa, polizia militarrean, interpreteak bezala eta inteligentzia zerbitzuan. Enloeren arabera armadaren esparru hauek feminizatuak izan dira armadaren irudi preziotsua ez galtzeko, honakoa maskulinizatutako erakundea den heinean⁶⁴. Honez gain, 2003. urtean “Miles Fundazioak”, AEBko armadan jazotzen diren bortxaketa kasuak edo indarkeria sexuala salatu egiten dituen erakunde feministak, salatu egin zuen 1000 kasu baino gehiago “sexu jokabide desegokiari dagokionez”. Era berean salatu

⁶¹ Jeffreys, S. (2007). *op. cit.* 18. or.

⁶² Zalewski, M. (1995). “Well, ...”, *op. cit.*, 351. or.

⁶³ Jeffreys, S. (2007). “Double jeopardy...”, *op. cit.*, 22. or.

⁶⁴ Enloe, C. (2007). *Globalization and Militarism...op. cit.* 95. or.

izan zen 2002.urtean, non kasuak 900 izan ziren. Sheila Jeffreysek kezkarria ikusi du salaketa gehienak gatazka eremuetan gertatu izanak⁶⁵.

Bukatzeko, azpimarratu beharra dago hainbat autoreen ustez indar armatuak guztiz maskulinizatutako erakundea dira, non generoen arteko ezberdintasunak biderkatzen diren⁶⁶. Bestalde, baliteke indar armatuek emakumeak biltzea emakumeen kopurua handitzeko erakundearen barnean eta zenbakietan; eta modu honetan erakunde berdintsuago baten irudia proiektatzea, Enloeren aburuz begi-bistan erakunde “onargarriagoa” bihurtzeko.⁶⁷

2.3. Nazioarteko Zuzenbidea eta 2003ko Irakeko esku hartze militarra: Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren posizioa

Gure kasu praktikoari gerturatuz, atal honetan 2003an AEBk burututako Irakeko esku hartze militarra aztertuko dugu, zehazki Nazio Batuen (NB) Segurtasun Kontseiluaren (SK) printzipioak aztertuz; baita honen inguruan oraindik irekita dauden eztabaiden inguruan ikertuz. Horretarako, lehenengo Nazio Batuen Gutunaren artikulua aztertuko ditugu indarkeriaren erabilerari eta defentsari dagokienez. Bigarrenik, Irakeko esku hartzearen eta SKren kronologia azalduko dugu; eta azkenik, AEBk erabilitako prebentziorako defentsa legitimoaren inguruan dagoen eztabaida azalduko dugu era laburrean.

Lehenik, Nazio Batuen printzipioak, helburuak eta eskuduntzak San Frantziskon (AEBn) 1945ean sinatu zen Gutunean bilduko dira. Modu berean, nazioarteko erakunde jaio berriaren estruktura ere adostu zen. Horiek horrela, alde batetik NBen Batzar Nagusia sortuko da, non NBen kide guztiak ordezkaturik egongo diren. Nahiz eta Batzar Nagusia eztabaidarako eta erabakitzeko gune garrantzitsua izango den, honek ez du izango eskuduntza betearazlerik. Hain zuzen, botere betearazlea izango duena SK izango da. Batzar Nagusiak ez bezala, SKk soilik hamabost kide izango ditu. Eta hamabost hoietatik, bost kide iraunkorrak izango dira, beto eskubideaz gozatuko dutenak. Bost kide iraunkor hauek munduko potentziek osatuko dituzte, hurrenez hurren: Erresuma Batua, Txinako Herri Errepublikak, Errusiar Federazioa, AEB eta Frantziar Errepublikak. Beste hamar kideak urtero bost kideek osatutako taldeetan

⁶⁵ Jeffrey, Sheila (2007). “Double jeopardy...”, *op. cit.*, 20. or.

⁶⁶ Zalewski, M. (1995). “Well, ...”, *op. cit.*, 349. or.

⁶⁷ Enloe, C. (2007). *op. cit.* 69. or.

aukeratuak dira. Bukatzeko, SKren helburu nagusia nazioarteko bakea eta segurtasuna zaintzea izango da ⁶⁸.

Hau behin azalduta, 1945eko Gutunaren eskuduntza Estatuaren arteko indarkeriaren erabilerari dagokionez aztertuko dugu. Batetik, beharrezkoa dugu lehenik bi kontzeptu ulertzea gatazka armatuen arauketa ulertzeko: segurtasun kolektiboa eta defentsa legitimoa. Segurtasun kolektiboaren helburua arrisku egoeran dauden Estatuak indarkeriaren erabilera indibidualari uko egitea da, horren truke arrisku horren aurrean gizartearen taldearen erantzunaren bermea izango du. NBen Gutunak ⁶⁹ 2.4. Artikuluan ezarriko du erakundearen kideek indarkeriaren erabilerari uko egiteko beharra, lurraldearen osotasunaren edo Estatu horren independentzia politikoaren aurkako atakea den kasuetan. Orokorrean, NBek Estatuaren arteko indarkeriaren erabilera debekatu egingo du, ekintza NBen printzipioen aurka badao. Dena dela, Gutunak salbuespen batzuk ezarriko ditu besteak beste, VII. Kapituluak onartuko du Estatuaren arteko indarkeriaren erabilera nazioarteko bakea mehatxatuta egotekotan, bakearen urratzea egotekotan edo eraso ekintza egoteko aukera badago. Kasu horietan 39., 41. eta 42. Artikuluek agintzen dutenez, SKren eta NBen esku egongo da gerra baten legezkotasunaren inguruan erabakitzea eta legeak ematea. Izan ere, 51. Artikuluak kideek defentsa legitimo “inmanentearen” erabilerarako eskubidea ezarri egiten du, indibiduala edo kolektiboa, erasoaldi armatu baten aurka. Hortaz, defentsa legitimoa gatazka batean esku hartzeko justifikazio zentrala eta salbuespenezkoa bihurtuko da, hori bai, SKren akordioa behar duena.

Gutuna idatzi zenetik VII. Kapituluak ez da erabili 1990. urtera arte, Golkoko I. Gerra arte. Testuinguru honetan, SKk Golkoko I. Gerra lege onartuko du, 678. Ebazpena berretsiz (1990. urtean). Haatik, ondoren gertatutako esku hartzen legezkotasuna zalantzan jarri da gaur egunera arte. Adibidez NATOk Kosovon egindako esku hartzea, eta AEBk Afghanistanen (2001) eta Iraken (2003).

Orain, SKren eta AEBn artean Irakeko inbasioari buruzko gertaerak aztertuko ditugu kronologikoki. Hasteko, 2003ko inbasioa baino lehen SKk 2001eko azaroan 1382. Ebazpena berretsiko du Irak eta Kuwait arteko egoeraz ohartaraziz. Ondoren,

⁶⁸ Martínez Rueda, Fernando eta Aizpuru Murua, Mikel. (2011). “Mundu bipolarren sorrera eta Gerra Hotzaren bilakaera”, 21. or. Fernando Martínez Rueda eta Mikel Aizpuru Murua (ed.) *Gaur egungo munduaren historia, 1945-2009*. Udako Euskal Unibertsitatea.

⁶⁹ Nazio Batuen Gutuna: <http://www.un.org/es/charter-united-nations/index.html> [Kontsulta data: 2018-05-17].

urtero bezala 2002. urteko irailean AEBko administrazioak bere Segurtasun Nazionalerako Estrategia argitaratuko du. Aipatutako azken dokumentuan bertan agertuko da prebentziorako defentsa legitimoaren printzipioa⁷⁰. Estrategia argitaratu ondoren, George W. Bush AEBko Kongresura joango da Iraken esku hartzea burutzeko onespena eskatuz. Behin onespena izanda SKra abiatuko da inbasioaren legalizazio bila. Bush SKra joan baino lehen, SKk 1441. Ebazpena berretsi zuen 2002ko azaroan. Ebazpen honek ultimatumak emango dio Irakeri bere desarmatze prozesuan; gainera ez da argi eta garbi geldituko inbasioa legeztatuko duen ala ez. Bigarrenik, inbasioaren ostean SKk 1483. Ebazpena argitaratu zuen, aldi berean 2003ko maiatzean, kasu honetan laguntza humanitarioa eskatzen zen bereziki baina ere azpimarratu behar da hamahiru urte ondoren, SKk Irakeri ezarritako zigor ekonomikoak kenduko dizkiola ebazpen honetan. Azkenik, 2003ko urrian 1511. Ebazpena berretsiko da SKan. Azken ebazpen honek NBen Gutunaren VII. Kapituluak aipatuko du bake-mehatxuak egoteko kasuetan; gainera azpimarratzekoa da 1511. Ebazpenak “behin behineko agintaritzak” bat ezarriko duela, Irakeko egoeraren ardura hartuko duena: gobernuaren erantzukizunaren ardura izango du eta Irakeko agintaritzaren arduraduna bilakatuko da. Hain zuzen ere behin behineko agintaritzak hau indar okupatzaileek osatuko dute.

Era honetan AEBk argitaratutako Segurtasun Nazionalerako Estrategiak aipatutako prebentziorako defentsa legitimoaren kontzeptuaren inguruan eztabaida zabala eratuko da. Autore batzuk, adibidez Héctor Gros Espiellak argudiatuko du “ezin dela” prebentziorako defentsa legitimoaren izenean “posible” den eraso armatu baten aurka beste eraso bat burutzea, lehenengo erasoak benetan burutu arte. Eta aurreikusitako daitekeen erasoaren aurrean, SKrengana jo beharko litzateke⁷¹.

Paz Andrések adibidez, argudiatuko du “defentsa legitimoa, indibiduala edo kolektiboa, erabiltzeko eskubide inmanentearen” baieztapenak erraztu duela Estatu batzuek, AEBk kasu honetan, aldebakarreko ekintza armatua burutzea. Izan ere, nazioarteko testuingurua kontuan hartuta eta I. Johnstonek azaldutako “gertakarien

⁷⁰The White House (2002). “The National Security Strategy of the United States of America”. 6. or. Sarean eskuragarri: <https://www.state.gov/documents/organization/63562.pdf> . [Kontsulta data: 2018-05-07].

⁷¹Gros Espiell, Héctor (2004). “La pretendida legítima defensa preventiva y la guerra de Irak”. *Anuario de Derecho Constitucional Latinoamericano*, 877. or. Sarean eskuragarri: <http://historico.juridicas.unam.mx/publica/librev/rev/dconstla/cont/2004.2/pr/pr21.pdf> . [Kontsulta data: 2018-05-08].

metaketaren teoriak” baliatuz⁷², batzuek adierazten dute SKk AEBn ekintza armatuak 2001ko irailaren 11 eta gero, urte horretako atentatuen eta nazioarteko terrorismoari erantzuna interpretatu zuela. Esaterako, AEBn Afghanistango eta Irakeko gerrak izan dira eztabaidatuak. Irakeko kasuan, SKren gehiengoak ukatu egin zuen esku hartzea legez onartuko zuen ebazpen bat berrestea, nahiz eta gerra ostean hainbat ebazpen argitaratu ziren lehen aipatu moduan, AEBn agintea berretsiz lurralde irakiarrean. Esku hartzea eta gero hurrengo ebazpenak onartuko ditu SKk, hala nola: burututako ekintza armatua onartuko du (1483. ebazpena, 2003an), potentzia “okupatzaileen” erabakiak onartuko ditu (1.551. (2003)), nazioarteko indarren presentzia baimenduko du (1546. (2004)), eta NBen rol txikiagoa onartuko du (1637. (2005))⁷³.

Ikusi dugunez, SKren posizioak Irakeko gerrari dagokionez zalantzan jarriko du gerraren legezkotasuna baita SKren funtzionalitatea. Eztabaida hau gaur egunera arte luzatu egin da, inflexio puntua izango delako nazioarteko zuzenbidean, zein nazioarteko harremanetan AEBn hegemonian.

⁷²García, Caterina eta Rodrigo, J. Ángel (2008). *La Seguridad Comprometida. Nuevos desafíos, amenazas y conflictos armados*. Madrid: Tecnos. Universitat Pompeu Fabra, 117. or.

⁷³ *Ibidem*, 114. or.

3. ANALISIA. TEORIA PRAKTIKARA ERAMANEZ: IRAKEN BIZI DIREN EMAKUMEEN KASUA⁷⁴

3.1. 2003ko esku hartze militarren aurrekariak eta zergatiak

Atal honi hasiera emateko, AEBk Iraken burututako esku hartzearen buruzko oinarritzko informazioa azalduko dugu. Ondoren, 2003. urtetik baino lehenagoko Irakeko egoera politiko eta ekonomikoa aztertuko dugu. Aldi berean, Iraken bizi diren/ziren emakumeen egoera politiko eta soziala aztertuz, Saddam Husseinen agintetik AEBko tropak heldu arte.

Gauzak horrela, 2003ko martxoaren 19an, AEBko momentuko presidentea, George W. Bush, *CBS News* katetik emandako hitzaldiak Irakeko esku hartzeari hasiera eman zion⁷⁵. Era berean, Mendebaldeko zenbait herrialde, besteak beste Erresuma Batua, Polonia, Espainia eta Australia, publikoki babestu zuten AEBk burututako esku hartzea eta Mendebaldeko aliantza eratu zuten.

AEBko administrazioaren partetik esku hartze militarren motibazio nagusiei dagokienez; lehenik eta behin, AEBko administrazioak 2001eko irailaren 11ren atentatuen ostean gerra bidezkoa (*just war*) eta terrorismoaren aurkako gerra (*war on terror*)⁷⁶ martxan jarri zituen, demokraziaren eta segurtasunaren izenean defendatuko zutena. Ildo beretik, Irak inbaditzeko motibazio nagusien artean AEBk bi arrazoi nagusi azpimarratu zituen. Batetik, Saddam Husseinen gobernuak legez kanpoko suntsipen masiborako armak zituela; eta bestetik, Irakeko gobernuak terrorismoa finantzatu izana. Horrez gain, Baath Alderdi Arabiar Sozialistari erregimenaren izaera diktatoriala eta

⁷⁴ OHAR ARGIGARRIA: Batetik, Gradu Amaierako Lan honen analisisa Iraken bizi diren emakumeen 2003ko osteko egoerara gerturatzeko saiakera da. Hain zuzen ere, hurrengo lerroetan azalduko den pertzepzioa urruntasunetik eraikitakoa da, geografikoki zein erreferentzia guztiei dagokionez. Bestetik, 1979tik 2003. urtera arte Irakeko presidentea izandakoari, ortografiari dagokionez Saddam Hussein bezala idatziko dugu. Azkenik, “irakiar emakumeak” aipatu ordez, nahiago izan dugu “Iraken bizi diren emakumeak” aipatzea. Hain zuzen, hainbat autoreek aitortu baitute ez dela existitzen “emakume irakiarra”. Irak hain anitza da, ezen intersektionalitate sozial, kultural, politiko, erlijioso etab. asko existitzen diren. Hortaz, kasu gehienetan “Iraken bizi diren emakumeak” aipatuko ditugu, “emakume irakiarrek” aipatu ordez. (Azken gai honen inguruz gehiago sakontzeko ikus: Fischer-Tahir, A. (2010). “Competition, Cooperation and Resistance: Women in the Political Field in Iraq.” *International Affairs (Royal Institute of International Affairs 1944-)*, 86. bol., 6. zk., 1381.-1394. or. Sarean eskuragarri: <http://www.jstor.org/stable/40929768>. [Kontsulta data: 2018-05-26].

⁷⁵ White House Archives (2003). “President Bush addresses the Nation” 2003ko martxoaren 19an. Sarean eskuragarri: <https://georgewbush-whitehouse.archives.gov/news/releases/2003/03/20030319-17.html>. [Kontsulta data: 2018-03-15].

⁷⁶ Mujika Chao, I. (2017). “Nazioarteko gatazkak”, Ander Gutiérrez-Solana Journoud (koord.) (et al.) *Nazioarteko Harremanetako 14 Giltza-hitz*. Bilbo: EHU, Argitalpen Zerbitzua. (135. or.).

NBen ebazpenak haustea⁷⁷ leporatu zioten Saddam Husseineri. Gehitu beharra dago, Irak George W. Bushen deitutako “Gaitzaren Ardatzaren” (“*the axis of evil*”) parte zela. Iranekin eta Ipar Korearekin batera, hiru herrialdeak nazioarteko terrorismoaren babesleak eta laguntzaileak ziren AEBn ustez⁷⁸. Testuinguru honetan, AEBn esku hartzearen aldeko diskurtsoan berebiziko garrantzia hartuko du “emakume irakiarraren” irudikapenak. Hain zuzen ere, Bushen administrazioak adierazi zuen esku hartzea emakume irakiarraren “liberazioa” gauzatzeko beharrezkoa zela⁷⁹. Estatuatuaren diskurtsoak Ekialde Hurbila “askatzea”⁸⁰ azpimarratuko du, Mendebaldetik balore demokratikoen eta segurtasunaren kontzeptuaren esportazioaren bidez.

Gerrari dagokionez, 2003ko maiatzaren batean indar okupatzaileek gerra bukatutzat emango dute. Gerra ostea, aldiz, ez da oraindik bukatu⁸¹. Esku hartzearen unean, Irak ekonomikoki itota zegoen Segurtasun Kontseiluak inposatutako zigor ekonomien eta petrolio-blokeoaren ondorioz. Egoera honek Irak estutzeaz gain, emakumeen egoera baldintzatuko du.

3.2. Iraken bizi ziren emakumeen egoeraren analisia AEBko esku hartzea baino lehen: maskulinitate eta feminitate rola landuz

Lanaren atal honetan Irakeko egoera politikoa eta ekonomikoa aztertuko dugu esku hartzea baino lehen. Analisisian zehar Irakeko emakumeen egoera sozialaren eta ekonomikoaren azterketaren oinarrituko gara.

Hasteko, aipatu beharra dago XX. Mendeko erdialdean Irakeko ideologia nagusiak, komunismoa eta arabiar nazionalismoa hurrenez hurren, sekularrak ziren izatez; ideologia erlijiosoak aldiz ez zuen rol garrantzitsurik jokatu. Era berean, momentu horretan, ideologia politikoa ez da arduratuko jatorri etnikoaz edo erlijiosoaz. Aitzitik,

⁷⁷Tortosa Blasco, J.M. (2004). La guerra de Irak: un enfoque orwelliano. 23.or. Universidad de Alicante.

⁷⁸ BBC News (2002). “US expands “axis of evil”. Sarean eskuragarri: <http://news.bbc.co.uk/2/hi/americas/1971852.stm> BBC News, 2002ko maiatzaren 2an idatzitako berria. [Kontsulta data: 2018-04-09].

⁷⁹ Al-Ali, N. eta Pratt, N. (2006). “Researching Women in Post-Invasion Iraq: Negotiating ‘Truth’ and Deconstructing Dominant Discourses”. *Bulletin of the Royal Institute for Inter-Faith Studies* 8, 1.-2. zbk, 193. - 214. orr. Sarean eskuragarri: <http://eprints.soas.ac.uk/12660/1/PDF.pdf>.

⁸⁰ The White House Archives (2003). “President Bush addresses the Nation op. cit.”

⁸¹ Ayestaran, M., Irazabal, A., eta Zurutuza, K. (2017). *Ekialde Hurbila. Muinak eta ertzak*. 30.or. Aleka.

gizartearen bereizgarri nagusiak klase soziala eta joera politikoa eta intelektuala izango dira⁸².

Gizarteari dagokionez, Iraken bereizketa esanguratsua existituko da hirietako erdi mailako emakumeen eta nekazal eremuetako emakume txiroen artean. Lehen taldeak hezkuntzaz, osasunaz eta atzerrirako bidaiez gozatuko zuen; eta bigarrenak ez zuen hezkuntzarako aukerarik, eta baldintza ekonomiko gogorren menpean bizirauteko borrokan bizi zen. Dena dela, erdi eta maila altuko Irakeko emakume askok, *establishment*-aren parte izan arren, Irakeko emakumeen egoera hobetzeko zenbait talde aktibista eratu zituzten⁸³. Besteak beste: Irakiar Emakumeen Liga (*Rabitat al-Mar'a al-Iraqiyya*), euren esfortzuei esker indibiduoaren zuzenbidezko egoera aldatzea lortu zen, XX. Mendean zehar Iraken emakumeen alde eman zen aurrerapenik esanguratsuen izango zen⁸⁴. Gero 1959.urtean “estatus pertsonalaren legea” (*Personal status law*), mugarri bat izango da Irakeko emakumeen eskubideen borrokan. Lege honek emakumeei herentzia eskubidea xedatu zien; poligamia eta aldebakarreko dibortzioa (gizonarena) mugatuko da, ezkontzarako emakumeen onarpena beharrezkoa bihurtuko da⁸⁵.

Egoera politikoari zegokionez, Hassan al-Bakr presidenteak bere karguari uko egin eta gero; 1979an, bere adiskidea zen Saddam Hussein boterera heldu zen. Alde batera utzita Saddam Husseinek burututako ankerkeriak⁸⁶, Irakeko gizartearen zati handi batek baldintza ekonomiko altuaz gozaten zuen Saddam Husseinen agintean zehar, petrolioaren prezioaren igoerak eta gobernuaren garapenaren aldeko politikak sortutako *boom* ekonomikoa zela eta⁸⁷.

Hazkuntza ekonomikoaren ondorioz Irakeko garapena jasangarria izateko eskulan gehiago beharrezkoa zen. Beraz, gobernuan zegoen Baath alderdi arabiar sozialistak

⁸² Al-Ali, N. eta Pratt, N. (2010). “Iraqi women before the invasion”. 1. kapituluak: *What kind of liberation? : Women and the Occupation of Iraq* (2010) liburuan, University of California Press, 26-27. or. Sarean eskuragarri:

<https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=M7MwDwAAQBAJ&oi=fnd&pg=PR9&dq=what+kind+of+liberation&ots=pYjxlIEA6z&sig=forWyfj1JjgqYLxvw2J2wv1lrIA> . [Kontsulta data: 2017-11-12].

⁸³ *Ibidem*.

⁸⁴ Al-Ali, N. eta Pratt, N. (2010). “Iraqi women before the invasion”, *op. cit.*, 27. or.

⁸⁵ *Ibidem*, 27. or.

⁸⁶ Besteak beste, Saddam Husseinek 1986 eta 1989. urteen artean kurduen aurka “Anfal Kanpaina”, burutu zuen, non “arazo kurdua” ezabatu nahian kalkulatu izan da agintari sunitak 50,000 kurdu baino gehiago erail zituela. Erreferentzia: Human Rights Watch (2006). “Genocide in Iraq - The Anfal Campaign Against the Kurds”. Sarean eskuragarri: https://www.hrw.org/legacy/english/docs/2006/08/14/iraq13979_txt.htm [Kontsulta data: 2018-04-21].

⁸⁷ Al-Ali, N. eta Pratt, N. (2010). “Iraqi women before the invasion...”, *op. cit.*, 26-27. or.

motibazio ekonomikoengatik bultzatuta emakumearen eta gizonaren arteko berdintasunagatik baino; emakumeak herrialdearen ekonomiaren eskulanean parte hartzeko politika ekonomiko berria jarri zuen martxan, legegintzan aldaketak egiteaz gain. Adibidez, 1970. urteko Irakeko behin-behineko Konstituzioa aurrerakoa zen berdintasun eskubideei dagokienez. Era berean, 1974. urtean berretsi zen unibertsitatean ikasleek, emakume edo gizona izan, automatikoki lanpostua izango zutela. Geroago, etxetik kanpo lan egitea onargarria eta prestigiotsua bihurtuko zen. Modu berean, 1976. urtean derrigorrezko eta dohainezko lehen hezkuntzarako legea onartu zen emakumeentzako zein gizonentzako⁸⁸. Saddam Hussein zuzendaritzak hainbat ekimen onartu zituen erregimena modernizatzeko, Irakiar ekonomia eta giza baliabideak hobetuz. Emakumeei zegokienez dohainezko haurzaintza eskaini zen, amatasun abantaila eskuzabalak, amak eta langileak ziren emakumeak elikagaiez hornitzen zituen Estatuak. Halaber, gobernuak derrigorrezko sozializazio esparruak eratu zituen, non alfabetatze eskolak eskaini ziren hirietan zein nekazal eremuetan, azken hauetan analfabetismo tasa askoz handiagoa zen hirietan baino. Horrez gain, joste eskolak eta josteko makinak doan eskaini zituzten, emakumeek errenta minimo bat lortu zezaten. Horiek horrela, Saddam Husseinek politiken arrakasta ikusita, hau ez zen geldirik geratu eta prozesua irakiarrak doktrinatzeko erabili zuen. Nahiz eta Saddam Husseinen intentzioak ez ziren bideragarrienak, azpimarratzekoa da Irakeko analfabetatze indizea murriztu zela, emakumeak politika hauen onuradun nagusiak izanda. Horrela, Saddam Hussein gobernuak bere doktrinamendua aurrera eramateko hezkuntza ezinbesteko erreminta zuen. Honez gain, baath gobernuak “irakiar emakume berriaren” eta “irakiar gizon berriaren” imajinarioak eratu nahi izan zituen. Printzipioz zirudien erregimenak maskulinitate eta feminitate rol tradizionalak alboratu egingo zituela. Irakeko nazio aurrerakoi modernoa garatzeko ahaleginean emakumeak eta gizonak elkarren ondoan irudikatua izan ziren. Hau da, Irakeko Estatuak nazioaren garapena lortzeko genero berdintasunera hurbiltzen ziren imajinarioa sortu nahi izan zuen; gainera emakumeen hezkuntza eta eskulana bultzatuz, emakumeen ahalduntzea suspertuz.

1980. urtean, Irakek AEBren laguntzarekin, Irani gerra deklaratu zion. Gerrak zortzi urte iraun zuen, eta hau bukatu bitartean gobernuak errotik aldatu zituen momentura arte

⁸⁸ Human Rights Watch (2014). ““No one is safe” Abuses of women in Iraq’s Criminal Justice System” *Human Rights Watch*. Sarean eskuragarria: http://www.wluml.org/sites/wluml.org/files/HRW_Iraq_Justice_Abuses.pdf . [Kontsulta data: 2018-04-02].

eraikitako ongizate estatuaren izaera eta politika publikoak emakumeei eta genero harremanei zegokienez, ideologia kontserbadoreagoa hautatuz. Iraneko Gerraren ondorioz, gizonezkoek frentetara jo behar izan zuten, eta bitartean emakumeak gizartearen zamaren arduradunak bihurtu ziren partida bikoitzez. Alde batetik, etxeko lanen arduradun bakarrak ziren, eta bestetik, Estatuaren lan burokratikoak burutu behar izan zuten, “super emakumeak” (*superwomen*) bihurtuz. Datuen arabera, 80ko hamarkadan emakumeak Irakeko irakasleen %46, medikuen %29, eta botikarien %70 osatzen zuten⁸⁹. Super emakumeen irudikapenek hain zuzen, Enloek azaldutako sistema patriarkalaren ezaugarri garrantzitsu batean oinarritzen dira: emakumeek besteekiko sakrifizioa eskaintzea, honako hau jokaera naturala balitz bezala ulertuta⁹⁰. Honi jarraituz, ikusi dezakegu Irango gerrak inflexio puntu bat markatuko duela Estatu batharraren norabidea maskulinitatearen eta feminitatearen inguruan pentsatzeko moduari dagokienez. Gerra honek herrialdearen kemena eta ekonomia lurretik utzi zituen, eta irakiarren adorea berpizteko Saddam Husseinek nazio modernoaren eraikuntza alde batera utzi zuen, militarizazioaren gorespenaren alde eginez. Ondorioz, gizonezkoak emakumeen ohorearen zaintzaileak irudikatuz hasi zen erregimena,aldi berean Irakeko Errepublikaren babesleak bihurtuko ditu. Hau da, Estatuaren segurtasunaren maskulinizazioa ikusten dugu hemen. Horrez gain, Saddam Husseinen erregimenak ez zituen maskulinitatearen irudikapen guztiak goraipatu, baizik eta maskulinitate mota espezifikoetako prestigio sozial altua emango die, esate baterako: soldaduaren figurari, bestetik nazioaren defendatzailearen irudiarri eta azkenik martirarenari. Irudikapen hauek maskulinitateak goraipatzen duen abertzaletasunarekin dute zer ikusia, baita nazioaren defentsarekin. Saddam Husseinek maskulinitate hauetzat baliatu zen heinean, Irakeko gizartea gero eta militarizatuagoa bihurtuko da⁹¹.

Militarizazioaren maskulinitatea handiestu ez ezik, feminitatearen irudikapenetaz ere baliatu ziren. Kasu honetan, ama irakiarraren irudia goresetuko da, amatasuna izanik irakiar “on” baten zeregina. Hain zuzen ere, Saddam Husseinek amatasunaren aldeko kanpainak bultzatuko ditu, non emakume irakiarrak bost seme izateko deialdia egingo den, nazioaren defendatzaile eta borrokalari gehiago sortzeko⁹². Gainera, Iranekin

⁸⁹ Puttick, M. (2015). “No place to turn: Violence against women in Iraq conflict”. Ceasefire Project, 17. or. Sarean eskuragarri: https://www.ecoi.net/en/file/local/1327571/1226_1425308981_ceasefire-report-no-place-to-turn.pdf. [Kontsulta data: 2018-05-18].

⁹⁰ Enloe, C. (2007). *Globalization and Militarism: ...op. cit.*, 67. or.

⁹¹ Al-Ali, N. eta Pratt, N. (2010). “Iraqi women before the invasion...”, *op. cit.*, 38. or.

⁹² *Ibidem*.

konparatuz Irakek bazuen desoreka demografikoa, hortaz, emakumeen ugalkortasunaren aldeko kanpaina hauek etorkizuneko soldaduen belaunaldi handiagoa eratzeko helburua zuen ere⁹³. Ondorioz, emakumeak asmo militarerrako eta nazioaren asmorako bitartekoak bihurtuko dira. Horiek horrela, Irakeko emakumeak baliiodun subjektuak bihurtuko dira Estatuaren asmorako, ez bere eskulanagatik, edo bere ezagutzagatik, baizik eta umeak eratzeko gaitasunagatik, eta honek suposatzen duen sakrifizioagaitik. Laburbilduz, Iraneko gerraostean, zailtasun ekonomikoen ondorioz, gizartearen morala berpizteko Irakeko erregimen sozialistak militarizazio maskulinizatuaren irudikapenek bat egingo dute ama irakiarraren glorifikazioarekin, modu honetan sistema patriarkalaren oinarriak ezarriz.

Laburbilduz, gerra hau nolabaiteko atzerakada izango da emakumeen egoeran, Estatuak emakumeen lan eta hezkuntza alde batera utziko baitu ugaltzearen eta amatasunaren izenean. Era berean, 1991.urtean Golkoko Gerrak Nazio Batuen SKren gaitzespena eragingo du; ondorioz, SKk zigor ekonomiko latzak eta petrolioaren blokeoa ezarriko dio Irakeri. Nahiz eta Irakeko emakumeen egoera lehen baino txarragoa izan, nazioarteko zigorrak baino lehen Ekialde Hurbilean hezkuntza gehien jasotzen zutenen artean zeuden, eta eskulanean gogoz aritu ziren zehapenak eta blokeoa heldu arte. Al-Aliren aburuz, Golkoko I.Gerrak milaka hildako eragin zituen, baina zigor ekonomikoen menpe bizitako 13 urteek eragindako ongizate estatuaren sunsiketaren ondorioak neurritz kanpokoak izan zirela emakumeengan gizonengan baino. Estatuaren diskurtsoa eta politika publikoak errotik aldatu ziren genero berdintasunari eta emakumeen ahalduentzari zegokienez. Saddam Husseinek tradizio islamikoa, politika kontserbadoreak, errepresio politikoa eta gizartearen militarizazioaren aldeko apustu handia egin zuen. Bitartean, ekonomia hondatuta zegoen, langabezia tasak hazi baino ez zuen egiten eta honen ondorioz emakumeak arlo pribatura bultzatu zituzten, euren etxeetara; Enloeren aburuz emakumeek ustez “bete beharreko zereginak” (etxeke lanak, haurren zaintza adibidez) egitera⁹⁴. Saddam Husseinek emakumeen askatasuna murriztu zuen, kontserbadurismo erlijioso eta soziala areagotuz. Errealitate hau tresna politikotzat erabili zuen bere gutxitutako boterea sendotzeko, aurreko urteetan emandako aurrerapenak hankaz gora jarritz emakumeen estatusari dagokionez.

⁹³ *Ibidem.*

⁹⁴ Enloe, C. (2007). *Globalization and militarism...op.cit.*, 67. or.

Egoera honek eragingo du sistema patriarkalaren sendotzea eta erlijioaren eragina suspertzea Iraken. Honek guztiak emakumeen egoera aldatuko du esate baterako: neurri hertsia ezarri janzterako orduan (neska eta emakume askok *hijab*-a hasi ziren erabiltzen kalean sumatzen zen kontserbadurismo sozialaren ondorioz), emakumeen espazio publikoaren mugikortasunaren murrizketa baita espazio mistoetan ere. Bestalde emakumeak etxeetara bueltatzeak eta lan esparrua uzteak ondorioak izango ditu: lehenik, emakume askok lana galtzean ez dute sarrera ekonomikorik izango. Hortaz, emakumeen eros ahalmena murriztu eta hau dela bide emakumeek botere ekonomikoa eta politikoa galdu zuten⁹⁵. Horiek horrela, Saddam Husseinek emakumeen espazio publikoaren mugikortasuna estutzeaz gain, emakumeen sexualitatea eta amatasuna Estatuaren segurtasunerako eta garapenerako oinarrietarikoak bihurtuko ditu.

Laburbilduz, 70. eta 80. hamarkadetan jazotako boom ekonomikoari esker Irakeko emakumeak euren hezkuntzarako eta laneratzeko onuragarriak ziren politika publikoak eta programez baliatu ziren, euren ahalduntzea areagotuz. Etxetik zen esparru pribatutik atera ziren Irakeko arlo publikora eta ekonomiara barneratzeko. Gero, Iran eta Irak arteko gerran Iraken geratu ziren emakumeak bete egin zituzten gerrara joandako gizonezkoek utzitako lanpostuak. Dena dela, 1990.eko Golkoko Gerraren ostean emakumeen egoera atzeratu zen. Gerraostean SKk zigor ekonomikoak eta petrolioaren blokeoa inposatu zion Irakeri, honek ekonomiaren egonkortasuna galarazi zuen. Ezegonkortasun honek kontserbadurismo sozial handia eragin zuen, ondorioz emakumeak etxeetara bueltatzera bultzatuak izan ziren eta honek aurreko aurrerapen sozialen etenaldia eragin zuen. Kontserbadurismo honen adibide bat: 2000. urteko Nazio Batuen Garapenerako Programako (NBGP) txostenak emakumezkoen enpleguen tasen berri eman zuen. 1991 aurretik emakumeen enplegu tasa %23koa zen Iraken; aldiz 1997an %10rera jaitsi egin zen⁹⁶.

Horiek horrela, AEBko administrazioak diskurtsoaren erdian jarri zituen Iraken bizi ziren emakumeak⁹⁷. Diskurtso honek adierazten zuen Saddam Hussein agintetik kentzea beharrezkoa zela Irakeko emakumeak erregimenaren berezko opresioaz askatzeko. Egia

⁹⁵ Al-Ali, N. (2011). "A feminist perspective on the Iraq War". *WORKS AND DAYS* 57/58: 29. bol. Sarean eskuragarri: <http://eprints.soas.ac.uk/id/eprint/12116>. [Kontsulta data: 2017-11-12]. Artikulutik lortutako emakume irakiarren hainbat bizi esperientzietatik abiatuta.

⁹⁶ Al Ali, N. (2011). "A feminist perspective...", *op. cit.*, 4. or.

⁹⁷ Al-Ali, N. eta Pratt, N. (2006a). "Researching Women in Post-Invasion Iraq: Negotiating 'Truth' and Deconstructing Dominant Discourses". *Bulletin of the Royal Institute for Inter-Faith Studies* 8, 1.-2. zbk, 193. - 214. orr. Sarean eskuragarri: <http://eprints.soas.ac.uk/12660/1/PDF.pdf>.

da AEBko administrazioa ez dela aktore bakarra izango esku hartzea sustatuko duena. Hain zuzen ere, AEBko feminista askok esku hartzearen alde zeuden emakume musulmanek askatasuna lor zezaten⁹⁸. Honez gain bazeuden ere klase altuko Irakeko emakumeak esku hartzearen aldekoak zirenak. Aurrekoaren kontrara, AEBko bestelako feminista batzuk diskurtso hau kontraesankorra aurkitu zuten, Bushen alderdiak azken boladan bestelako iritziak transmititu izan baitzituen. Besteak beste, abortuaren aurkako diskurtsoa konstantea izan zen baita homosexualen ezkontzaren aurkako iritziak⁹⁹. Beraz, terrorismoaren aurkako gerra honek hainbat indar ideologiko multzokatuko ditu: alde batetik, garapena, demokrazia, sekularizazioa, segurtasuna, arrazoi humanitarioak, defentsa, askatasuna, eta bestetik, kutsu feminista zuten ideiek baina “abiapuntu neoliberalarekin” (merkatu ekonomiak eta pribatizazioak herriaren liberazioa eragiten dutela pentsatzeak). Nadjé Al Alik eta Nicola Pratték argudiatuko dute AEBn diskurtsoa “feminismo neo-kontserbadorean” oinarritzen zela. Haatik, autore hauek onartuko dute diskurtso honek teorian emakumeak “Irak berriaren” eraikuntzaren agenteak bihurtzen dituela, eta honek motibatu dezakeela emakumeen sektore asko. Aitzitik, AEBko diskurtsoak emakumeak kategorizatzen zituen Al-Aliren eta Pratten arabera: batetik emakumeak Saddam Husseinen erregimenaren biktimak irudikatuz eta bestetik “Irak berriaren” heroiak¹⁰⁰. Bi autore hauen ustez, AEBk diskurtsoan irudikatutako irakiar emakumeen biktimizazioa eta “ahultasuna” esku hartzea justifikatzeko tresna izan zen. Gainera, 2003ko erasoari sinesgarritasuna emateko Saddam Husseinen erregimenak burututako basakeria batzuk publikoki argitaratu zituen AEBko gobernu sailak¹⁰¹ inbasioaren beharraren ideia indarberritzeko; emakumeak torturak, bortxaketak, eraso sexualak eta beste diskriminazio motetatik salbatzeko. Egia da Saddam Husseinen erregimenean bazegoela biolentziarekiko esposizioa, baina Irakeko emakumeak jarraitzen dute genero indarkeria sufritzen¹⁰², gero aztertuko dugun bezala. Egia esan, kasu honetan AEBk erasotutko Estatuetan rol paternalista barneratuko du bestea (*the*

⁹⁸ Al-Ali, N. (2011). “A feminist perspective...”, *op. cit.*, 7. or.

⁹⁹ Hindi, N. (2016). “La relación entre el feminismo, la patria y el patriotismo/nacionalismo (*wataniyya*) en Iraq”. Granada: *Universidad de Granada*, 281. or. Sarean eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10481/43470>. [Kontsulta data: 2017-11-21].

¹⁰⁰ Al-Ali, N. eta Pratt, N. (2006a). “Researching Women in Post-Invasion Iraq: *op. cit.*” 200. or.

¹⁰¹ State Department’s Office of Women Issues (2003). “Life under Saddam Hussein: Past Repression and Atrocities by Saddam Hussein’s Regime”. Sarean eskuragarri: <https://2001-2009.state.gov/p/nea/rls/19675.htm>. [Kontsulta data: 2018-05-11].

¹⁰² Argitu behar dugu, atal honetan “indarkeria” aipatzean, John Galtung-ek teorizatutako “Indarkeriaren triangulura” deritzogu, espezifikoki genero indarkeriari dagokion indarkeria ezberdinei: estrukturala izan (sistematik eratorritakoa, adibidez), kulturala izan (aukera ezberdintasuna adibidez) eta indarkeria zuzena (indarkeria fisikoa).

other) infantilizatu nahian. Brownek eta Ainleyk dioten moduan, balore demokratikoen eta giza eskubideen “sustatzailatzat” agertuko dira AEB¹⁰³.

Diskurtso honek erakargarritasuna iradoki dezake, uko egiten baitio Irakeko emakumeak biktima bezala ikustera. Dena dela, AEBn diskurtsoa praktikan aztertuko dugu, alde batetik ikusteko zer nolako “liberazioa” eskaini zioten irakiar herriari zein emakumeei; eta beste aldetik egiaztatzeko “demokratizatze” prozesu hura gertatu den.

3.3. Irak esku hartzea eta ondoren

3.3.1. Iraken bizi ziren emakumeen egoera AEBko esku hartzea eta gero: emakumeen rola Irakeko gatazkan, maskulinitate eta feminitate rol ezberdinak aztertuz

Hala, 2003ko martxoaren 20an AEBk Iraken esku hartuko du eta Saddam Hussein agintetik kenduko dute. Gatazka luze honek hainbat ondorio eragingo ditu Iraken, horien artean: krisi humanitarioa, eta erlijio eta etnien arteko talkak. Egoera honi aurre egiteko, behin behineko agintaritza (BBA) ezarriko da, mendebaldeko koalizioak zuzenduko duena. Hortik aurrera Irakeko subiranotasuna AEBk zuzendutako Indar Multinazionalaren eskuetara pasatuko da, herrialdearen ordena eta Estatuaren erakundeak berrezarri arte¹⁰⁴. Tamalez, behin behineko agintaritza ezartzeak ez du eragingo indarkeria mailaren etenaldia eta Irakeko berreraikuntzan zailtasunak topatuko dituzte.

Gerraren giza ondorio kuantitatiboei dagokienez, esku hartzea hasi zenetik gaur eguneraino AEBk zuzendutako koalizioak milaka zibilien heriotza eragingo ditu, Iraq Body Counten arabera¹⁰⁵. Indarkeria bolada ezberdinak egongo dira, 1. Irudian ikusi dezakegunez. Indarkeriaren hazkundearen zergati nagusia biolentzia sektarioa izanik, xiita eta sunien arteko gerraren ondorioa.

¹⁰³ Brown, C. eta Ainley, K. (2009). *Nazioarteko Harremanak zer diren*. Juan Garzia Garmendia (itzul). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua (2017), 13. or.

¹⁰⁴ Amnistía Internacional (2008). *Matanza y desesperación: Irak, cinco años después*. London, UK: Amnistía Internacional, 5.or. Sarean eskuragarri: <https://www.amnesty.org/en/documents/mde14/001/2008/en/>. [Kontsulta data: 2018-05-11].

¹⁰⁵ Iraq Body Count <https://www.iraqbodycount.org/database/> [Kontsulta data: 2018-05-11].

1. Irudia: 2003. urtetik aurrera, hilabetero indarkeriak eragindako zibilen heriotzak

Iraken

	Jan	Feb	Mar	Apr	May	Jun	Jul	Aug	Sep	Oct	Nov	Dec	
2003	3	2	3977	3438	545	597	646	833	566	515	487	524	12,133
2004	610	663	1004	1303	655	909	834	878	1042	1033	1676	1129	11,736
2005	1222	1297	905	1145	1396	1347	1536	2352	1444	1311	1487	1141	16,583
2006	1546	1579	1957	1804	2278	2593	3298	2865	2565	3037	3095	2900	29,517
2007	3032	2679	2726	2566	2851	2216	2696	2481	1387	1324	1124	996	26,078
2008	858	1092	1667	1315	914	753	639	704	612	594	540	586	10,274
2009	372	407	438	589	428	563	431	653	350	441	226	478	5,376
2010	267	305	336	385	387	385	488	520	254	315	307	218	4,167
2011	389	254	311	289	381	386	308	401	397	366	288	392	4,162
2012	531	356	377	392	304	529	469	422	400	290	253	299	4,622
2013	357	360	403	545	888	659	1145	1013	1306	1180	870	1126	9,852
2014	1097	972	1029	1037	1100	4088	1580	3340	1474	1738	1436	1327	20,218
2015	1490	1625	1105	2013	1295	1355	1845	1991	1445	1297	1021	1096	17,578
2016	1374	1258	1459	1192	1276	1405	1280	1375	935	1970	1738	1131	16,393
2017	1119	982	1920	1816	1871	1858	1498	597	490	397	348	291	13,187
2018	474	410	402	303									1,589

Iturria eta egilea : Iraq Body Count (<https://www.iraqbodycount.org/database/>)

[Kontsulta data: 2018-05-11].

Ildo beretik, sektarismoaren indarkeriaren aurrean emakumeak sektore ahulenetarikoa bihurtuko dira umekin batera, gatazkaren biktima nagusiak bihurtuz. Halaber, arrisku askoren artean, 2003ko esku hartzeak soilik horietako bat osatuko du. Besteak beste: inbasio islamistak, milizien eta matxinoen indarkeria, biolentzia sektarioa, eta era berean krisi humanitarioaren okerragotzea, eta bizi baldintzen narriadura¹⁰⁶.

Gerraren ondorio orokorrekin jarraituz, gatazka honek krisi humanitarioa sortuko du ere. Izan ere, eraso batzuek behar oinarrizkoen (ura, elektrizitatea eta elikagaiak) horniketa etengo dute. Gerraren albo kalteei dagokienez, erasoek bost milioi errefuxiatu eragingo dituzte eta milioi bat eta erdi emakume alardunak bihurtuko dira 2012an¹⁰⁷. Azken honi jarraituz, eta lan honek aplikatutako genero ikuspegian oinarrituz, Irakeko emakumeen esperientzia ezberdinetan oinarrituko gara. Kasu honetan hainbeste emakume alardun bihurtzeak eragin zuen emakume hauek sarrera ekonomiko baxuagoak jasotzeaz gain hauek etxeko zaintzaren agente bakarra bihurtzea. Ondorioz, errenta minimoa edukitzeko, emakume batzuk euren etxeak denda txikiak bilakatu

¹⁰⁶ Al-Ali, N. eta Pratt, N. (2006a). "Researching Women in Post-Invasion Iraq...", *op. cit.*, 11-12. or.

¹⁰⁷ Hindi, N. (2012). "Las limitaciones de la sociedad civil en el nuevo Iraq: el caso de la Organización de la Organización de la Libertad de las Mujeres", *Revista de Estudios Internacionales Mediterráneos* 13. zk (uztaila-abendua 2012), 3. or. Sarean: <https://revistas.uam.es/index.php/reim/article/view/892> . [Kontsulta data: 2017-11-12].

zituzten. Izan ere, erasoak zirela eta, elektrizitate eteteek ekiditu zuten saltegi hauen jarraipena¹⁰⁸.

Lanaren gaiaren harira, Irakeko okupazioa eta gero lanpostuak galdu zuten lehenak emakumeak izan ziren. Modu honetan, Women for Women International erakundeak 2004an gidatutako ikerketa baten arabera, inkestatutako emakumeen %84 ez zuten lanpostu batetik eratorritako diru sarrerarik jasotzen¹⁰⁹. Honek eramaten gaitu pentsatzera Irakeko egoera politikoa eta ekonomikoa krisian dagoenean, gerra eta gerra osteko kasuetan emakumeak direla kaltetuenak, betetzen dituzten feminitate rola direla eta. Ticknerrek aipatutako esparru publiko eta pribatuaren arteko ezberdintasunak berebiziko garrantzia jokatzen du hemen, bi generoen arteko hierarkia eraikitzean. Hau da, Irakeko egoera ekonomikoa eta politikoa krisian egonda, emakumeak etxeetara bultzatuak dira, historikoki feminitatearen irudikapena esparru pribatuan ulertua izan delako. Ondorioz, aurretik aipatutako Enloeren argudiaketari jarraituz, honek laguntzen du emakumeen portaera “naturalak” ezartzera esparru pribatuan eta bitartean, Irakeko Estatu berriaren eraikuntza prozesuan maskulinitate rola nagusitzea, marko teorikoan aipatu bezala. Era berean, baztertzaren diren lehenak emakumeen esperientzia eta ezagutza dira. Gainera, biktima bikoitzak dira, biolentzia fisikoa sufritzeko aukera handia baitute eta gainera, lan esparruaren biolentzia estrukturala ere pairatzen dute egoera ezegonkorren lehenengo biktimak izanik.

Aipatu beharra dago 2003.urtetik AEBko administrazioak esfortzu ekonomiko handia egin duela emakumeen erakundeak laguntzeko, baita Irakeko berrezarkuntzarako. Diru funtsen parte handia emakumeen partaidetza politikoa sustatzeko eta hauen egoera ekonomikoa eta soziala hobetzeko erabilia izan baita¹¹⁰. Adibide bezala, BBak Irakeko “demokratizazioa” bultzatu nahian eta emakumeen partaidetzaren berehalako emaitzak lortzeko saiakeran “*Iraq Women’s Democracy*” ekimena 10 milioi dolarrez finantzatu zuten¹¹¹. Honen harira eta Enloeren irudikapenari jarraituz, argudiatu dezakegu AEBk Irakeko emakumeak “ezkutatutako” (“*the hidden*”)

¹⁰⁸ Iraq Solidaridad (2005). “Deterioro en Iraq de la situación política y económica de la mujer bajo la ocupación estadounidense”. Sarean eskuragarri: www.iraqsolidaridad.org/2004-2005/informes/mujer_26-04-05.html. [Kontsulta data: 2018-05-15].

¹⁰⁹ *Ibidem*.

¹¹⁰ Al-Ali, N. eta Pratt, N. (2006b). “Women in Iraq: Beyond the Rhetoric”. *Middle East Report*, 239.zk., 2006ko uda, 19. or. Sarean eskuragarri: http://wrap.warwick.ac.uk/1090/1/WRAP_Pratt_0873082-150709-al-ali_pratt239final.pdf. [Kontsulta data: 2018-05-12].

¹¹¹ Hindi, N. (2012). “Las limitaciones de la sociedad civil en el nuevo Iraq...”, *op. cit.*, 6. or.

subjektutzat irudikatu zituen esku hartzea baino aurretik, subjektu pasiboak eta biktimak bezala. Aldiz, programa sozial hauen bidez Iraken bizi ziren emakumeak “mendebalderartze” prozesu baten bidez “agertzen den” (“*the revealed*”) emakume bilakatu nahiko dute; bilakaera positiboki baloratu.

Nahiz eta emakumeen partaidetza sustatzeko asmoa izan, emakumeak gerra ostearen subjektu ahulenak dira, eta aldi berean indarkeria (sexuala) jasateko probabilitate altuena jasateko subjektuak dira. Gainera, Irakeko eremu publikoan (kaleetan adibidez) existitzen den segurtasun faltaren biktima nagusiak baitira, indarkeriarekiko erakusketa hau emakumeen egunerokotasunean eragina izanik. Irantzu Mendiak azaldu bezala, biktimizazio bikoitza jasango dute emakumeek. Human Rights Watch (HRW) eta MADRE erakundeek gidatutako ikerketetan inkestatutako Irakeko emakume gehienek aitortu dute esku hartzea eta gero segurtasun eza izan dela aldaketa azpimarragarriena. Esate baterako, HRWek 2003ko uztailean argitaratutako txostenean¹¹², Bagdaden bizi ziren zenbait emakumek adierazi zuten euren egunerokotasuna eremu pribatuari zegokiola ehuneko ehunean, kaleko segurtasun falta zela eta ez baitziren eskolara joaten, ezta lanera, ez zuten ezta lana bilatzen, etxetik ateratzea suposatzen zuen beldurra eta arriskuagatik. Txosten berean baieztatu zuten Bagdaden adibidez emakumeen aurkako sexu indarkeria kasuak (bortxaketak, erailketak, tortura kasuak, etab.) esponenzialki hazi zirela esku hartzea hasi zenetik¹¹³.

MADREren aburuz indarkeriaren helburua emakumeak dira, erasotzaileen ideologia, erlijioa eta etnia edozein izanik ere¹¹⁴. Emakumeen aitortpenen arabera indarkeriaren goraldi hau gerrak eragindako desintegrazio sozialari eta kriminal egintzari zein taldeen arteko ezberdintasunei erantzuten dio. Era berean, MADREren txostenaren aburuz sektarismoaren alde guztietan emakumeen aurkako indarkeria “erlijioaren izenean” burutzen da, aldiz, benetako helburua politikoa dela aitortzen dute¹¹⁵. Ikusi dugu ideologia edozein izanda, emakumeak talde guztien indarkeriaren helburu direla, emakumeen aurkako indarkeria gerrako arma gisa bihurtuz. Gainera

¹¹² Human Rights Watch (2003). “Climate of fear: Sexual violence and abduction of women and girls in Baghdad” *Human Rights Watch*. 8. or. Sarean eskuragarri: <https://www.hrw.org/reports/2003/iraq0703/iraq0703.pdf>. [Kontsulta data: 2018-05-20].

¹¹³ *Ibidem*.

¹¹⁴ MADRE, An International Women’s Human Rights Organization (2007). “Promising Democracy, Imposing Theocracy: Gender-Based Violence and the US War on Iraq”. 5. or. Sarean eskuragarri: http://www.peacewomen.org/sites/default/files/vaw_promisingdemocracyimposingtheocracy_madre_mar_ch2008_0.pdf. [Kontsulta data: 2018-05-12].

¹¹⁵ *Ibidem*, 8. or.

Irakeko kulturen kontuan hartu beharrekoa da sexu indarkeriak biktimen estigmatizazio soziala sortu dezakeela, emakumeen marginalizazioa eraginduz edo familiak berak biktima erailtzea ohorearen izenean. Emakumeengan proiektatutako indarkeriaren arrazoiatarikoa feminitateak iradokitzen duen ahultasunagatik izan daiteke. Horrez gain, 2003ko martxotik piztutako suniten eta xiiten arteko gerra dela eta, pentsatu dezakegu etsaiaren ohorea eta borroka ahalmena hondatzeko tresna emakumeak bortxatuzea edo erailtzea izan daitekeela; modu honetan emakumeen amatasuna ekiditeko eta etorkizuneko “borrokalarien” belaunaldiak gelditzeko.

Bestetik, badaude erasotzaileen helburu diren emakumeen profil eta kolektibo espezifikoak, bereziki esparru politikoan diharduten emakumeak, aktibistak, profesionalak, irakasleak, ikasleak, eta publikoki emakumeen eskubideen alde egiten dutenak¹¹⁶.

Emakumearen aurkako indarkeria ez da soilik fisikoa. Alegia, AEBk babestutako Irakeko Barne Arazoetako ministroak publikoki “abisatuko” die emakumeei, euren etxeetatik bakarrik ez ateratzea, era berean familia kideei ohartarazi zien familiako emakumeak lanpostua lortzekotan, modu guztien bitartez hau saihestea¹¹⁷. Beraz, aitorpen hauek indarkeria fisikoa ez izan arren, deklarazioek emakumearekiko indarkeria kulturala eta estrukturala osatzen dute; emakumearen ezagutza eta esperientzia gutxiesteko saiakeran oinarritutako ideologia patriarkalean baitaude oinarrituta. Eta aldi berean gizonak euren maskulinitatea frogatzen dute emakumeen mugikortasunean eta erabakietan kontrola jardutean. Mezu mota hauek emakumeen potentziala estutzen dute eta kasu honetan bereziki emakumeen partaidetza esparru publikoan murriztuta ikusten da. Beraz, azken hau lotzen badugu Iraken emakume politikariak edota esparru publikoan lan egiten dutenak jasan behar duten mehatxuetara eta arriskueta, emakumeak zaurgarriak bihurtu dira okupazioan zehar. Adibidez politikan lanean aritzen diren emakumeak indarkeriaren helburu zehatzagoak direla, talde sektarioen ustez tradizionalki feminitatearen roleri uko egiten dietelako, beraz batzuk feminitatearen desafiotzat ulertu dezakete.

Mehatxuei eta segurtasun faltari aurre egiteko Irakeko emakumeek erakundeak eratu zituzten, erresistentzia zibila areagotzeko eta emakumeen eskubideengatik

¹¹⁶*Ibidem*, 8-9. or.

¹¹⁷*Ibidem*, 9. or.

borrokatzeko. AEBk aurreko erregimenaren arrastoak ezabatu nahian, Saddam Hussein erregimenaren erakunde gehienak desagerrarazi zituzten. Horrela, Nadia Hindiren ustez, AEBk euren modura gizarte zibil berria eraikitzeko zabalguene garbia eratu zuten. Dena den, Irakeko emakume aktibistek mendebaldeko inposizioei eta indar okupatzaileei aurre egiteko ere mobilizatuko dira. Emakumeen aldeko erakunde mota asko daude, gehienak gobernu kanpoko erakundeak dira AEBn menpe sortutakoak, esate baterako: Emakumeen Irakiar Batzarra, 1000 Emakumeen Konferentzia, Etorkizunerako Emakume Irakiarren Elkarte, etab. Hauek prozesu politikoari lotuta egongo dira era batean edo bestean: alderdi politiko bati afiliatu izana, edo Irakeko Emakumeen Talde Independentearen kasuan bezala, parlamentari batek sortu izana (Maysun al-Damalujik sortutakoa). Beste aldetik, badaude prozesu politikoarekiko independente direnak, adibidez: Emakumeen Askatasunerako Erakundea, Emakumeen Borondatearen Erakundea eta Irakiar Emakumeen Liga (hau erbestetik funtzionatzen du eta beste 90 erakunde multzokatzen ditu)¹¹⁸. Emakumeen erakundeen artean banatze lerro ideologiko zein erlijioso asko aurkitu ditzakegu, AEBn diskurtsoak irudikatutakoaren kontrara, zeinak emakume irakiarrek biktima homogeenak irudikatu zituen. Horiek horrela, erakundeen arteko ezberdintasun esanguratsuen sekularra *versus* Islamista izango da, eta ez okupazioaren alde edo kontra egotea, atzeritik eraikitako diskurtsoek irudikatu duten bezala¹¹⁹.

Horren harira, interesgarria da Emakumeen Askatasunerako Erakundearen (EAE) kasua aztertzea, ez duelako emakumea biktima moduan irudikatzen, baizik eta aldaketaren agentea. 2003an sortutako erakunde hau feminista, marxista eta sekularra da. Genero berdintasunaren defendatzaile sutsua izateaz gain, fundamentalismo islamiarraren eta Irakeko okupazioaren aurka dago. Orain, emakumeen osotasunerako arrisku nagusia milizia islamistak izanik, milizia hauen helburu nagusiak profil publikoa duten emakume sekularrak dira¹²⁰. Nahiz eta EAEk emakumeen aurkako erasoak salatu, erakundeak ez duenez AEBk babestutako prozesu politikoaren babesa, ez du beste erakundeek duten legitimitate adina eta ez dute oihartzun bera. Era berean, erakundearen aktibismo politikoa eta bere agenda feminista, sekularra eta “erradikala”, bideratuko dute talde islamiarretan, alderdi politikoetan eta okupazioan existitzen den genero indarkeria salatzerantz eta kontzientziatzerantz. Okupazioaren aurkako eta aktibismo

¹¹⁸ Hindi, N. (2012). “Las limitaciones de la sociedad civil en el nuevo Iraq...”, *op. cit.*, 6-7. or.

¹¹⁹ Al-Ali, N. eta Pratt, N. (2008). “Researching women in Post-invasion Iraq:...”, *op. cit.*, 12. or.

¹²⁰ Hindi, N. (2012). *Ibidem*.

sekularra dela eta gobernuz kanpoko erakundeen erregistrotik ezabatzeko mehatxuak jaso ditu Irakeko Gobernuaren partetik, baita euren egoitzak ixteko mehatxuak ere. Modu berean, Nadia Hindik azaltzen du EAEren agendak talde kontserbadoreekin zein gobernuarekin talkak eragin dituela, baita beste emakumeen aldeko erakundeekiko urruntasuna eta tentsioak ere. Ondorioz, honek oztopatuko du emakumeen talde islamisten eta sekularren arteko elkartasuna genero berdintasunerako bidean. Aurretik azaldutakoaren arabera, emakumeak esparru publikoan onartuak izango dira baldin eta hegemonia maskulinoa eta identitate maskulinoen pribilegioak ukitzen ez badira. Gainera, EAEk behartutako prostituzioa edo homosexualen aurkako errepresioa bezalako gai “deserosoak”¹²¹ mahaigaineratzen ditu. Kasu honetan nahiko argi ikusi daiteke, erakunde honek okupazioaren eta mendebaldeak gidatutako berreraikuntza kolokan jartzen saiatzen dela, gobernu eta elite politikoak deseroso jarritz.

Beste aldetik, AEBk Irakeko berreraikuntzaren prozesuan Irakeko Berreraikuntzarako eta Laguntza Humanitariorako Ministeritza eratu zuen (ingelesez *ORHA*), agintean Paul Bremer diplomatiko estatubatuarra izendatuz. Nahiz eta AEBk irakiar emakumeen “liberazioa” hitzeman zuen, zenbait gertakari azpimarratu behar ditugu. Adibidez, Irakeko emakumeen estatus pertsonala mehatxatuta izango da 2004an, Paul Bremerek 137. Ebazpena berretsi nahian. Honek eragingo luke 1959. urtean onartutako “Estatus pertsonalaren legearen” deuseztapena, Iraken emakumeen aldeko XX. Mendeko lorpenik handienetakoa. Haatik, 137. Ebazpena *shari'a*-n (jurisprudentzia islamikoan) oinarritzen zen, askoz kontserbadorea eta mugatzailea den legea. Hortaz 137. Ebazpenak emakumeen egoeraren atzeraldi historikoa suposatuko luke. Azkenean, Irakeko emakumeen ebazpenaren aurkako mobilizazioek lortu zuten Bremerek ebazpena ez berrestea¹²².

Al-Ali eta Pratten arabera Irakeko Estatuaren berreraikuntza porrot bat izango da AEBn partetik, batez ere emakumeentzako, hauek direlako biolentziaren eta segurtasunaren larriagotzearen biktima nagusiak¹²³. Gainera, Irakeko Gobernuaren 2005ko Konstituzioaren negoziaketa mahaian ordezkapen handiena alderdi erlijioso gehienek izan zuten. Nadia Hindiren arabera, gutxiengoaren zatiketa honek ez du Irakeko dibertsitatea ordezkatzeko, eta etorkizunean gatazka larriagoak eratu ditzake. Era

¹²¹ *Ibidem*, 9. or.

¹²² Al-Ali, N. eta Pratt, N. (2006b). “Women in Iraq: Beyond the Rhetoric”, *op. cit.*, 20. or.

¹²³ Al-Ali, N. eta Pratt, N. (2008). “Researching women in post-invasion Iraq:...” , *op.cit.*, 15. or.

berean, negoziaketetan zeuden emakume gehienak erbestean egon eta gero Irakera behin bueltatuta, elite politikoaren eta ekonomikoaren parte ziren¹²⁴. Azkenean, ikusiko da emakumeen aurkako sexu indarkeria deuseztatzeko neurriak ez zirela kontuan hartuko 2005eko Konstituzioan. Genero ikuspegiaren hutsunaren adibidea 39. Artikulua dugu: Konstituzioak auzitegi erlijiosoen eskuetan utziko du norbaitek familian, estatus pertsonalean, ezkontzan, etbn. arazoak izatekotan¹²⁵. Gauza da auzitegi hauek *shari'*aren irakurketa tradizionaletan oinarritzen direla, ondorioz, emakumeen testigantza gizonezkoen erdia balioko du¹²⁶. Egia da Konstituzioan Irakeko Parlamentuaren %25 emakumeak diren kideentzako kuota ezarri zela; aitzitik, irakiar feministen %40ko kuotaren proposamena deuseztatua izan zen. Gainera, organo politikoetan emakumeen presentziak ez du esan nahi genero harremanak berdintasunezkoak izango direnik, ezta emakumeen aurkako biolentzia geldituko denik. Emakumeen presentzia ziurtatu nahi den moduan, batzuetan Gobernuaren erakundeen aurpegi “berdintsuagoa” eskaini nahi da. Lehen esan bezala, honek ez du esan nahi maskulinitate eta feminitate rol tradizionalak ekidituko direnik. Horiek horrela, Irakeko berreraikuntza maskulinizatutako prozesua izango da, hain zuzen, Konstituzioan genero berdintasuna ez da egongo behin behineko agintaritzaren eta Irakeko alderdi islamiarren lehentasunen artean. Alegia, BBaren lehentasunen artean segurtasuna (ikuspegi tradizional batetik) zen garrantzitsuen; eta alderdi islamiarren kasuan, Estatuaren konfesionaltasuna.

Beraz, emakumeak alde batetik gerrako arma gisa erabiliak izango dira helburu politikoak lortzeko; baina beste aldetik, emakumeen interesak eta ongi izatea ez dira funtsezkoak izango Irakeko Estatuaren berreraikuntzan.

3.3.2. Genero ezberdintasuna indar armatuetan eta Abu Ghraibeko kasua: AEBko indar armatuen parte ziren emakume estatubatuarren Iraken

Irakeko emakumeak ez ezik, AEBko indar armatuetako emakumeak gure azterketarako gaia izango dira ere; bi arrazoiengatik nagusiki: batetik, gatazka armatuaren testuinguruan emakumeak eta soldaduak izategatik; eta bestetik, Abu

¹²⁴Hindi, N. (2016). “La relación entre el feminismo, la patria y el patriotismo/nacionalismo...”, *op. cit.*, 293.-294. or.

¹²⁵Irakeko Konstituzioa (2005), sarean eskuragarri:

<http://www.wipo.int/wipolex/es/details.jsp?id=10027> .[Kontsulta data: 2018-05-19].

¹²⁶MADRE, An International Women’s Human Rights Organization (2007). “Promising Democracy, Imposing Theocracy...”, *op. cit.*, 6. or.

Ghraibeko tortura kasuen ondorioz. Gainera, biolentziaren inguruan eraikitako emakumeen eta feminitatearen irudikapen ezberdinak azpimarratzea gustatuko litzaiguke.

Hala, Abu Ghraibetik hiru *shock* mota helarazi ziren AEBko iritzi publikoan, Cynthia Enloeren arabera: batetik, tortura kasuek ez zuten bat egiten AEBk hitzemandako Irakeko “liberazioarekin”; bestetik, presoek jasandako abusuak kontraesankorrak dira AEBk sinatutako Genevako Konbentzioekin; eta azkenik, emakumeek tortura kasuetan nahasiak egotea biolentzia egileak bezala ¹²⁷.

Hari beretik, marko teorikoan azaldu bezala armadak funtzionamendu zuzena izateko, maskulinitatearen beharrea dago. Era berean, feminizazioa “bestearen” estatusa gutxiestean datza, eta hau izango da hain zuzen Abu Ghraibeko estatubatuar funtzionarioek aplikatuko dutena tortura moduan. Enloeren arabera maskulinitatea goraiatua eta feminizazioa gutxietsia diren kultura patriarkaletan, feminizazioa etsaia “beldurrarazteko” tresnatzat erabili daiteke¹²⁸. Hain zuzen, Abu Ghraibeko espetxean zeuden estatubatuar emakume soldaduek gizonezko irakiar presoak torturatu eta erasotu zituzten. Honez gain, Jeffreysek azaltzen du emakumeek gizonezko irakiar presoak torturatzea ez dela soilik indarkeria kontua; baizik eta etsaia, kasu honetan, irakiar presoak, apaltzea genero, botere eta arraza harremanak birmoldeatuz¹²⁹. Emakume batek gizon preso bat jipoitzea gehiago suminduko du etsaia, genero eta botere harremanak trukutzen direlako. Halaber, emakume soldadu estatubatuarrak burututako erasoak euren nagusien (gizonezkoak) aginduak ziren. Berriz ere emakumeak gizonezkoen artean mezuak bidaltzeko bitartekoak izango dira Jeffreyren aburuz. Alegia, botere eta genero harremanek berebiziko rola jokatuko dute, historikoki gutxiagotua izan den feminitateak etsaiaren maskulinitatea erasotu eta iraintzen badu; botere harreman logika berria ezarriz, feminitateak maskulinitatea makurraraziz. Abu Ghraiben erabilitako tortura adibideen artean irakiar presoak emakumeak balira bezala tratatzea zen, presoek masturbatzen behartzen zieten, presoak emakumeen jokabideak antzeztea, edo emakumeak bezala janztea. Enloeren aburuz, presoak behartuak badira modu

¹²⁷ Enloe, C. (2007). *Globalization and... op. cit.*, 100. or.

¹²⁸ Enloe, C. (2007). *Globalization and...op. cit.*, 95, 96. or.

¹²⁹ Jeffreys, S. (2007). “Double jeopardy: Women, the US military and the war in Iraq”. *Women’s Studies International Forum* 30 (1), 22. or. Sarean eskuragarri: <https://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S0277539506001063> . [Kontsulta data: 2018-05-04].

feminizatuan jokatzera eta honen bitartez apalduak badira, emaitza presoek informazioa arinago ematea izango da.

Charles Graner jauna espetxearen abusuen “buruzagia” izan arren¹³⁰, Lyndie England gaztea izan zen arreta mediatiko gehien jaso zuena. Argazki batek erakutsiko du Englandek preso bat uhal baten bidez helduz. Nahiz eta egia den indarkeria burutu zuten emakumeek agentzia zutela; trataera ezberdin honek erakusten digu genero ezberdintasuna indar armatuetan¹³¹. Pentsatzeak emakumeak gizonak bezain gai direla etsaia torturatzeko, feminitate militarizatuaren ideala apurtzen du. Politikan bezala, Sjobergek argudiatzen du gatazka armatuaren testuinguruan armadako emakumeek biolentzia erabiltzekotan, bere feminitatea sozialki legitimatua izango dela. Hain zuzen, gatazketan eta armadan maskulinizatutako rola barneratu beharko dituztelako armadaren kideekin ondo moldatzeko. Hala ere, nahiz eta espero den emakume soldaduak gizona bezain gai izatea, ere espero da emakume soldaduak zibilak bezain zaugarriak izatea¹³². Lyndie Englanden irudiak apurtu egiten du emakume soldaduen ahultasunarekin. Emakume soldaduen alde krudel honek eragingo du Englanden irudiaren demonizazioa, komunikabideetan, hain zuzen, feminitatearen eta emakume on batek bete beharreko rol tradizionalei uko egiten dizkiolako.

Hain zuzen, Englanden irudikapenek Jean Elshainek azaldutako “*beautiful soul*” (arima ederra) irudiarekin hautsiko du. Abu Ghraibeko kasuak gatazka armatuaren testuinguruan sozialki eraiki diren genero estereotipoak apurtuko ditu. Honez gain, erakutsiko digu AEBko indar armatuak maskulinizatutako erakundea diren bitartean, generoak botere harreman ezberdinak eraikitzeke oinarritzeko da.

¹³⁰ Zernike, K. (2005). “Detainees describe abuses by guard in Iraqi prison” *The New York Times*, urtarrilaren 12an idatzita. Sarean eskuragarri: <https://www.nytimes.com/2005/01/12/world/detainees-describe-abuses-by-guard-in-iraq-prison.html>. [Kontsulta data: 2018-05-19].

¹³¹ Sjoberg, L. (2007). “Agency, Militarized Femininity and Enemy Other:...”, *op. cit.*, 90. or.

¹³² *Ibidem*, 93. or.

4. KONKLUSIO OROKORRAK

Azken atal honetan Gradu Amaierako lan honen konklusio orokorrak azalduko ditugu. Lehenengo, sarreran planteatutako hipotesiak egiaztatuko edo ezeztatuko ditugu, aurretik landutako marko teorikoan eta Iraken bizi diren emakumeen egoeraren analisisian oinarrituz. Ondoren, lanari amaiera emateko, hipotesiez gain lan osoan zehar atera ditugun beste konklusio batzuk ere azaleratuko ditugu; nahiz eta hasierako hipotesietan hauek ez planteatu, esanguratsuak baitira gure ustez.

Lehenik eta behin, lanaren sarreraren atalean planteatutako hipotesiak hurrengoak dira:

Lehenengo hipotesiak honela dio: *Iraken, emakumeen egoera sozio politikoa eta euren eskubide zibilen eta politikoen egoera hobea zen gerra baino lehen, gerra bukatu ondoren baino*. Hipotesi hau egiaztatu dezakegu, zehazki Irakeko emakumeen egoera gerra garaian okerragotu zelako. Hain zuzen, 2003ko gerraren ondorioz Iraken areagotutako kontserbadurismo soziala dela eta, feminitate rol tradizionalak indarra hartu zuten esparru publikoan zein pribatuan, Irakeko emakumeen lanerako eskubidea deuseztatuz, eta erakunde erradikalen bazterketa politikoa eta instituzionala eraginduz. Gainera, azpimarratu behar dugu emakumeen egoeraren okerragotze hau 2003ko gerraren ondorioz izateaz gain, Iran eta Irakeko gerran ere jazo zela. Beraz, ondorioztatu dezakegu Irakek jasandako azken hamarkadetako indarkeriazko gatazketan emakumeak izan direla egoeraren okerragotzea pairatu duten subjektu nagusiak. Are gehiago, askotan agintari politikoek zein talde sektarioek erabilitako bitartekoak bihurtu dira Irakeko emakumeak, hain zuzen helburu politikoak lortzeko.

Bigarren hipotesiak hurrengoak plantzeatzen du: *AEBko alde bakarreko esku hartzeak inposatutako militarizazioak ez du hobetu Irakeko emakumeen ahalduntzea*. Hipotesi hau egiaztatu dezakegu, hain zuzen Irakeko gatazkaren ondorioz nabariena segurtasun falta izan delako. Zehazki, emakumeen mugikortasuna eta askatasun politikoak 2003tik murriztuak izan dira. Honez gain, emakumeak, bereziki eremu publikoan jarduten duten emakumeek, talde armatuen helburu nagusiak bihurtu dira. Era berean, mugikortasunaren murrizketak ekiditzen zuen emakumeek askatasunez jardutea eremu publikoan (eskolara joatea, lanera, etab.). Hortaz, 2003. urtetik AEBk inposatutako militarizazioak ez du lagundu Irakeko emakumeen ahalduntzean.

Azkenik, hirugarren hipotesiak honela dio: *orokorrean, Irakeko emakumeen garapena eta egoera okerragotu egin dira 2003. urtetik, estatubatuarren inbasioa kausa nagusia izanik*. Honek bat egiten du aurreko bi hipotesietan landutako egiaztapenekin. Hain zuzen, estatubatuarren inbasioak indarkeriaren areagotzea eragiteaz gain, emakumeen askatasuna murriztu zuen, azken hauek joko politikorako bitartekoak bihurtuz; eremu publikoan zein pribatuan.

Hiru hipotesiak egiaztatu eta gero, analisisian zehar ateratako beste konklusio batzuk partekatzea gustatuko litzaiguke.

Adibidez, AEBk bulzatutako Irakeko Estatuaren bererrakuntzan islatuta egongo diren interes nagusien artean ez dira egongo emakumeen egoeraren inguruko interesik. Beraz ondorioztatu dezakegu AEBk gerraren hasi baino lehen erakutsitako Irakeko emakumeak liberatzeko motibazioak aldatu zituela denbora pasatu ahala. Honen ondorioz, AEBk Irakeko emakumeak estrategia politikoa bihurtuko ditu, gerra baino lehen eta modu berean gerra bitartean. Aitzitik, Iraken bizi diren emakumeen egoera eta interesak hobetzeko une erabakigarria heldu zenean (2005eko Konstituzioa adibidez), hauek ez dira paperean islatuko. Hortaz AEBk bere hitza ez betetzeaz gain, Estatu berriaren eraikuntzan ordezkapena zuten alderdiek (AEBn babesak zutenak alegia) ez dute Irakeko errealitate osoa ordezkatzeko, eta are gutxiago ez dute emakumeen kasua islatuko. Beste aldetik, AEBn diskurtsoak “irakiar emakumea” subjektu bakarra kontsideratu zuen, modu honetan imajinario kolektibo ezegokia irudikatuz; Irakeko emakumeen errealitatea askoz anitzagoa, intersektionatuagoa eta zatituagoa denean. Hau dela eta, Irakeko Estatuaren berreraikuntzaren prozesuak porrot egingo du emakumearen errealitatea eraikitzerako orduan; modu honetan, Estatu maskulino irakiarra eraikiz.

Ondoren, nahiz eta hipotesietan soilik Irakeko emakumeak aipatu, Irakeko 2003ko gerraren inguruan irakurtzean adierazgarria iruditu zaigu AEBko emakume soldaduen militarizazioa azaltzea. Alegia, emakumeen kasuan generoa beti izango da hauek epaitzeko eta baloratzeko adierazlea. Azken honi jarraituz, indarkeria erabili zuten Abu Ghraibeko emakume soldaduek euren pertsonen demonizazioa jasan zuten, feminitate rol tradizionalak ezarritako normalizazioari uko egin zitelako, eta errealitatearen beste aurpegia erakutsi zutelako. Horiek horrela, AEBko indar armatuetako emakumeek ezin izango diote euren generoari uko egin. Bestetik, emakume estatubatuar hauen

jokabideek, AEBko administrazioaren diskurtsoak eraikitako emakume mendebaldarraren feminitate idealarekin talka egingo du. Beraz, nahiz eta espero den emakume soldaduak berdintasunez aritzea armadaren baitan, atera dugun konklusioa da hau urrun dagoela AEBko armadaren errealitetik, azken hau maskulinizatutako erakundea izanda.

Bukatzeko, gustatuko litzaiguke argazki handira (*big picture*) begiratzea. Hain zuzen, esan dezakegu AEBk rol paternalista barneratu zuela Irakiar Errepublikarekiko, Mendebaldetik nagusitasun militarra zein gobernatzeko gaitasuna erakutsi nahian. Modu honetan maskulinizatutako diskurtsoa eratu zuen; eta aldi berean, Iraken erlijioari loturiko garapen eza azaleratu nahi izan zuen. Era honetan, bi agintarien arteko areriotasunak Mendebaldearen eta Ekialdearen arteko dikotomia sakonagoa bilakatu baitzuen. Horrez gain, indarkeriazko gatazkan amaitutako maskulinizatutako etsaitasun honek Mendebaldeari zein Ekialdeari lotutako genero rol tradizionalak indartu zituen. Ondorioz, honek alde batetik, AEBko emakume soldaduen feminitatearen gutxiespena eragingo du; eta beste aldetik, Iraken bizi diren emakumeak indarkeriazko gatazka honen kaltetuenak bihurtuko dira.

BIBLIOGRAFIA ETA DOKUMENTAZIO ITURRIAK

Bibliografia

Artikulu akademikoak

Al-Ali, Nadjie eta Pratt, Nicola (2006a). "Researching Women in Post-Invasion Iraq: Negotiating "Truth" and Deconstructing Dominant Discourses". *Bulletin of the Royal Institute for Inter-Faith Studies*, 8 (1-2). 193. - 214. orr. Sarean eskuragarri: <http://eprints.soas.ac.uk/12661/1/pdf.pdf> . [Kontsulta data: 2017-11-17].

___(2006b). "Women in Iraq: Beyond the Rhetoric". *Middle East Report*, 239.zk. Sarean eskuragarri: http://wrap.warwick.ac.uk/1090/1/WRAP_Pratt_0873082-150709-al-ali_pratt239final.pdf . [Kontsulta data: 2018-05-12].

___(2008). "Women's organizing and the conflict in Iraq since 2003". *Feminist Review*, 88. 74. - 85. or. Sarean eskuragarri: http://wrap.warwick.ac.uk/1101/1/WRAP_Pratt_revised_article_version_3.pdf . [Kontsulta data: 2018-03-20].

___(2010). "Iraqi Women before the invasion", 1. kapitulua: *What kind of liberation?: Women and the Occupation of Iraq* (2010) liburuan, University of California Press, 21. - 54. or. Sarean eskuragarri: <https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=M7MwDwAAQBAJ&oi=fnd&pg=PR9&dq=what+kind+of+liberation&ots=pYjxIIEA6z&sig=forWyfj1JjgqYLxvw2J2wv11rIA> . [Kontsulta data: 2017-11-12].

Al-Ali Nadjie (2011). "A feminist Perspective on the Iraq War". *WORKS AND DAYS* 57/58: 29. bol. Sarean eskuragarri: <http://eprints.soas.ac.uk/id/eprint/12116> . [Kontsulta data: 2017-11-12].

Asad, Talal (2010). "Thinking about terrorism and just war". *Cambridge Review of International Affairs*, 23:1, 3. - 24. or. Sarean eskuragarri: <https://doi.org/10.1080/09557570902956580> . [Kontsulta data: 2018-04-12].

Fischer-Tahir, Andrea (2010). "Competition, Cooperation and Resistance: Women in the Political Field in Iraq". *International Affairs (Royal Institute of International*

Affairs 1944-), 86. bol., 6. zk., 1381. - 1394. or. Sarean eskuragarri: <http://www.jstor.org/stable/40929768> . [Kontsulta data: 2018-05-26].

Gros Espiell, Héctor (2004). “La pretendida legítima defensa preventiva y la guerra de Irak”. *Anuario de Derecho Constitucional Latinoamericano*, 877.- 888. or. Sarean eskuragarri:

<http://historico.juridicas.unam.mx/publica/librev/rev/dconstla/cont/2004.2/pr/pr21.pdf> .

[Kontsulta data: 2018-05-08].

Hindi, Nadia (2012). “Las limitaciones de la sociedad civil en el nuevo Iraq: el caso de la Organización de la Libertad de las Mujeres”. *Revista de Estudios Internacionales Mediterráneos* 13. zk (uztaila-abendua 2012). Sarean eskuragarri: <https://revistas.uam.es/index.php/reim/article/view/892> . [Kontsulta data: 2017-11-12].

___(2016). “La relación entre el feminismo, la patria y el patriotismo/nacionalismo (*wataniyya*) en Iraq”. Granada: *Universidad de Granada*. Sarean eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10481/43470> . [Kontsulta data: 2017-11-21].

Jeffreys, Sheila (2007). “Double jeopardy: Women, the US military and the war in Iraq”. *Women’s Studies International Forum* 30 (1), 16. - 25. or. Sarean eskuragarri: <https://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S0277539506001063> . [Kontsulta data: 2018-05-04].

Magallón, Carmen (2004). “Las mujeres como sujeto colectivo de construcción de paz”, *Cuadernos Bakeaz*, 61. zk.

Mendia, Irantzu (2009). “Aportes sobre el activismo de las mujeres por la paz”, *Cuadernos de Trabajo de Hegoa*, 48. zk.

Perea Ozerin, Iratxe (2017). “Acción colectiva de las mujeres y procesos emancipadores en América Latina y el Caribe. Una aproximación desde los casos de Cuba, Bolivia y Ecuador”. *Foro Internacional* 230, LVII. Bol. 2017 (4), 915. - 950. or. Sarean eskuragarri: <http://forointernacional.colmex.mx/index.php/fi/article/view/2473/2425> . [Kontsulta data: 2018-05-08].

Pérez de Armiño, Karlos (2011). “¿Más allá de la seguridad humana? Desafíos y aportes de los estudios críticos de seguridad”. *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko*

Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak 2000, 235. - 308. or. Sarean eskuragarri:

http://www.ehu.es/cursosderechointernacionalvitoria/ponencias/pdf/2011/2011_5.pdf .

[Kontsulta data: 2018-05-26].

Puttick, Miriam (2015). "No place to turn: Violence against women in the Iraq conflict". Ceasefire Project. Sarean eskuragarri:

https://www.ecoi.net/en/file/local/1327571/1226_1425308981_ceasefire-report-no-place-to-turn.pdf . [Kontsulta data: 2018-05-18].

Rodríguez Manzano, Irene (2000). "Mujer, género y teoría feminista en las relaciones internacionales". *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak 2000*. Sarean eskuragarri:

<http://www.ehu.es/cursosderechointernacionalvitoria/ponencias/titulo.asp> . [Kontsulta data: 2018-05-24].

Sjoberg, Laura (2007). "Agency, Militarized Femininity and Enemy Other: Observations From the War in Iraq". *International Feminist Journal of Politics*, 9 (1), 82 - 101. or. Sarean eskuragarri: <https://doi.org/10.1080/14616740601066408> . [Kontsulta data: 2018-04-25].

___(2010). "Women fighters and the "beautiful soul" narrative". *International Review of the Red Cross*, 92 (877). Sarean eskuragarri: <https://doi.org/10.1017/S181638311000010X> . [Kontsulta data: 2018-03-12].

Stevens, Evelyn P. (1977). "Marianismo: La otra cara del machismo en Latinoamérica", Pescatello, Ann (1977). *Hembra y macho en Latinoamérica: Ensayos*. México, ed. Diana; 123. or.

Tickner, J. Ann (1997). "You just don't understand: Troubled Engagements between Feminist and IR Theorists". *International Studies Quarterly*, 41, 4. zk., 611.- 632. or. Sarean eskuragarri: https://www.jstor.org/stable/2600855?seq=1#page_scan_tab_contents . [Kontsulta data: 2018-04-25].

Zalewski, Marysia (1995). "Well, What is the Feminist Perspective on Bosnia?". *International Affairs (Royal Institute of International Affairs 1944-)*, 71(2), 339. - 356.

or. Sarean eskuragarri:
https://www.jstor.org/stable/2623438?seq=1#page_scan_tab_contents . [Kontsulta data: 2018-04-25].

Liburuak

Ayestaran, Mikel (2016). *Oriente Medio Oriente roto: Tras las huellas de una herida abierta*. Ediciones Península.

Ayestaran, Mikel; Irazabal, Ane; eta Zurutuza, Karlos (2017). *Ekialde Hurbila, muinak eta ertzak*. Aleka.

Brown, Chris eta Ainley, Kirsten (2009). *Nazioarteko Harremanak zer diren*. Juan Garzia Garmendia (itzul). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua (2017).

Connell, Raewyn (1995). *Masculinities*. University of California Press, Berkeley.

Elshtain, Jean Bethke (1987). *Women and War*. University of Chicago Press.

Enloe, Cynthia (1990). *Bananas, beaches and bases. making feminist sense of international politics*. University of California Press.

_____(2007). *Globalization and Militarism. Feminists Make the Link*, Lanham, Rowman & Littlefield.

García, Caterina eta Rodrigo, J. Ángel (2008). *La Seguridad Comprometida. Nuevos desafíos, amenazas y conflictos armados*. Madrid: Tecnos. Universitat Pompeu Fabra.

Martínez Rueda, Fernando eta Aizpuru Murua, Mikel (2011). “Mundu bipolarraren sorrera eta Gerra Hotzaren bilakaera”. Fernando Martínez Rueda eta Mikel Aizpuru Murua (ed.) *Gaur egungo munduaren historia, 1945-2009*. Udako Euskal Unibertsitatea.

Mujika Chao, Itziar (2017). “Nazioarteko gatazkak”, Ander Gutiérrez-Solana Journoud (koord.), Iratxe Perea Ozerin (et al.) *Nazioarteko Harremanetako 14 Giltzaitz*. 127. - 138. or. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.

Tickner, J. Ann (1992). *Gender in international relations: Feminist perspectives on achieving global security*. New York, NY: Columbia University Press.

Tortosa Blasco, José María (2004). *La guerra de Irak: un enfoque orwelliano*. Universidad de Alicante.

Zirion Landaluze, Iker (2017). “Segurtasuna”, Ander Gutiérrez-Solana Journoud (koord.), Iratxe Perea Ozerin (et al.) *Nazioarteko Harremanetako 14 Giltza-hitz*. 113. - 126. or. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.

Dokumentazio iturriak

Erakundeen txostenak

Amnistía Internacional (2005). “Irak. Decenios de sufrimiento: es hora que las mujeres reciban un trato mejor”. Amnistía Internacional, London: UK. Sarean eskuragarri: <http://web.amnesty.org/library/Index/ESLMDE140012005> . [Kontsulta data: 2018-05-18].

___(2008). *Matanza y desesperación: Irak, cinco años después*. London, UK: Amnistía Internacional. Sarean eskuragarri: <https://www.amnesty.org/en/documents/mde14/001/2008/en/> . [Kontsulta data: 2018-05-11].

Human Rights Watch (2003). “Climate of fear: Sexual violence and abduction of women and girls in Baghdad” *Human Rights Watch*. Sarean eskuragarri: <https://www.hrw.org/reports/2003/iraq0703/iraq0703.pdf> . [Kontsulta data: 2018-05-20].

___(2006). “Genocide in Iraq - The Anfal Campaign Against the Kurds”. *Humans Rights Watch*. Sarean eskuragarri: https://www.hrw.org/legacy/english/docs/2006/08/14/iraq13979_txt.htm . [Kontsulta data: 2018-04-21].

___(2014). ““No one is safe” Abuses of women in Iraq’s Criminal Justice System”. *Human Rights Watch*. Sarean eskuragarria: http://www.wluml.org/sites/wluml.org/files/HRW_Iraq_Justice_Abuses.pdf . [Kontsulta data: 2018-04-02].

MADRE, An International Women’s Human Rights Organization (2007). “Promising Democracy, Imposing Theocracy: Gender-Based Violence and the US War on Iraq”. Sarean eskuragarri:

http://www.peacewomen.org/sites/default/files/vaw_promisingdemocracyimposingtheocracy_madre_march2008_0.pdf . [Kontsulta data: 2018-05-12].

Nazio Batuen Erakundea, Segurtasun Kontseilua (2000). 1325. *Ebazpena*. Sarean eskuragarri: [http://www.un.org/womenwatch/ods/S-RES-1325\(2000\)-S.pdf](http://www.un.org/womenwatch/ods/S-RES-1325(2000)-S.pdf) . [Kontsulta data: 2018-05-29].

____(2002). 1441. *Ebazpena*. Sarean eskuragarri: [http://www.un.org/en/ga/search/view_doc.asp?symbol=S/RES/1441\(2002\)&referer=/english/&Lang=S](http://www.un.org/en/ga/search/view_doc.asp?symbol=S/RES/1441(2002)&referer=/english/&Lang=S) . [Kontsulta data: 2018-04-09].

____(2003a). 1483. *Ebazpena*. Sarean eskuragarri: <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N03/368/56/pdf/N0336856.pdf?OpenElement> . [Kontsulta data: 2018-05-02].

____(2003b). 1511. *Ebazpena*. Sarean eskuragarri: [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/1511%20\(2003\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/1511%20(2003)) . [Kontsulta data: 2018-05-08].

Egunkariak / Berriak

BBC News (2002). “US expands “axis of evil””. Sarean eskuragarri: <http://news.bbc.co.uk/2/hi/americas/1971852.stm> *BBC News*, 2002ko maiatzaren 2an idatzita. [Kontsulta data: 2018-04-09].

Zernike, Kate (2005). “Detainees describe abuses by guard in Iraqi prison” *The New York Times*, urtarrilaren 12an idatzita. Sarean eskuragarri: <https://www.nytimes.com/2005/01/12/world/detainees-describe-abuses-by-guard-in-iraq-prison.html> . [Kontsulta data: 2018-05-19].

Ikus entzunezko edukiak

White House Archives (2003). “President Bush addresses the Nation” 2003ko martxoaren 19an. Sarean eskuragarri: <https://georgewbush-whitehouse.archives.gov/news/releases/2003/03/20030319-17.html> . [Kontsulta data: 2018-03-15].

Beste iturri batzuk

Irakeko Konstituzioa (2005). Sarean eskuragarri: <http://www.wipo.int/wipolex/es/details.jsp?id=10027>. [Kontsulta data: 2018-05-19].

Iraq Body Count. Sarean eskuragarri: <https://www.iraqbodycount.org/database/>. [Kontsulta data: 2018-05-25].

Iraq Solidaridad (2005). “Deterioro en Iraq de la situación política y económica de la mujer bajo la ocupación estadounidense”. Sarean eskuragarri: www.iraqsolidaridad.org/2004-2005/informes/mujer_26-04-05.html. [Kontsulta data: 2018-05-15].

Nazio Batuen Gutuna. Sarean eskuragarri: <http://www.un.org/es/charter-united-nations/index.html>. [Kontsulta data: 2018-05-17].

State Department’s Office of Women Issues, (2003). “Life under Saddam Hussein: Past Repression and Atrocities by Saddam Hussein’s Regime”. Sarean eskuragarri: <https://2001-2009.state.gov/p/nea/rls/19675.htm>. [Kontsulta data: 2018-05-11].

The White House (2002). “The National Security Strategy of the United States of America”. 6. or. Sarean eskuragarri: <https://www.state.gov/documents/organization/63562.pdf>. [Kontsulta data: 2018-05-07].